

# 123

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2024ko urtarrila



## ELKARRIZKETA

Jon Arretxe:  
«Batzuetan  
iruditzen zait berak  
nahi duena egiten  
duela Tourek»

## ERREPORTAJEA


Mugikorraren  
sarean  
harrapatuta ez  
geratzeko ekintza  
kolektiboen bila

 ivap  
Gazte-erregimenaren  
bidelaguna



## EZTABAIDA

**Estatuko animalien  
ongizaterako legea:**  
bizi-baldintzak bermatzea helburu, ala  
esplotazioa legalki onartzeko erreminta?



## NORMALIZAZIOA

Euskararen etorkizun  
ikuspegia lantzen ari  
da Euskaltzaindia,  
'Euskararen  
Gogoetagunea'  
egitasmoaren bidez

MIEL ANJEL ELUSTONDO

## HITZETZ HITZ

Arkatzetik itzulpen  
neuronal eta  
adimen artifizialera

EDORTA ESPAÑA

## OSASUNA

Elikagaien  
segurtasuna etxean  
eta etxetik kanpo

PRIMROSE FREESTONE







Helena Azkarragaurizar

**Zuzendaritza:**

Administrazio Publikoaren  
Euskal Institutua (IVAP)

**Koordinatzailea:**

Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa  
eta inprimetzea:**

Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:**

Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**

Xabier Amatria, Begoña Ayerdi,  
Helena Azkarragaaurizar,  
Miel A. Elustondo, Edorta España,  
Irene Fernandez, Primrose Freestone,  
Jon González de Reparaz,  
Iñaki Irasizabal, Miren Agur Meabe,  
Jaione Lasa, Luma, Nerea Pikabea,  
Concetta Probanza, Hostaitza Zubeldia,  
Izaskun Zuntzunegi

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**

aldizkarian argitaratutako  
artikuluak berridatz daitezke  
bai osorik, bai zatika, baina  
artikuluak nondik etera diren  
aipatu behar da beti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**

aldizkariak ez ditu derrigor  
bere egiten artikulu eta  
kolaborazioetan agertzen  
diren iritziek.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Administrazio  
Publikoaren Euskal Institutua  
Donostia-San Sebastián 1  
01010 VITORIA-GASTEIZ  
Tel. 945 01 76 37  
[www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)

# Aurkibidea

- 2 Marrazkia**  
HELENA AZKARRAGAURIZAR
- 4 Pertsonaia**  
Maddalen Arzallus Antia  
NEREA PIKABEA
- 6 Elkarrizketa**  
Jon Arretxe:  
«Batzuetan iruditzen zait  
berak nahi duena egiten  
duela Tourek»  
MIEL A. ELUSTONDO
- 12 Erreportajea**  
Mugikorraren sarean  
harrapatuta ez geratzeko  
ekintza kolektiboen bila  
JON GONZÁLEZ DE REPARAZ
- 18 Leihatila**  
*Apirileko harria*  
MIREN AGUR MEABE
- [ARIKETAK]
- 19 Hezkuntza**  
Adimen-gaitasun handiak  
dituzten ikasleak iden-  
tifikatzeko protokoloa  
aplikatzen ari dira EAEko  
ikastetxe guztietan  
JAIONE LASA AGUIRRE
- 21 Eztabaida**  
Estatuko Animalien  
Ongizaterako Legea: bizi-  
baldintzak bermatzea  
helburu, ala esplotazioa  
legalki onartzeko  
erreminta?  
JON GONZÁLEZ DE REPARAZ
- 26 Hitzez hitz**  
Arkatzetik itzulpen  
neuronal eta adimen  
artifizialera?  
EDORTA ESPAÑA OCIO
- 28 Leihatila**  
*Txatalak*  
IÑAKI IRASIZABAL
- 29 Normalizazioa**  
Arnasa luzeko estrategia  
eta adostasunak marrazten  
MIEL ANJEL ELUSTONDO
- 31 Osasuna**  
Elikagaien segurtasuna  
etxean eta etxetik kanpo  
PRIMROSE FREESTONE
- 34 Denbora-pasak**  
LUMA



# Maddalen Arzallus Antia

BERTSOLARIA ETA AURKEZLEA

## «Bertsoa barruko korapiloak husteko modu bat da, baina funtzio sozial edo politikoa ere badu»

NEREA PIKABEA  
Kazetaria

**S**ortu zenetik, bertsoz eta kantuz inguraturik bizi da Maddalen Arzallus Antia (Hendaia, 1990). Itzulpengintza ikasi zuen Gasteizen eta, besteak beste, Asterix eta Obelixen komikiak euskarara itzultzen ditu. Ausardiaz eta umore finez egiten du bertsoan, entzuleen gozamenerako. ETB1eko «Biba zuek!» saioan dihardu egunero aurkezle lanetan, Xabier Sukiarekin batera. EITBk Donostian duen egoitzan egin dugu hitz-aspertua.

«Biba zuek!» saioan laugarren denboraldian ari zarete. Gustura al zabilta? Bai, gustuko lana da. Beti ez da tokatzen egiten duzun lan hori zure nortasunarekin bat egiten duena izatea. Euskal kulturari ate asko zabaltzen dizkion saioa da, nik sinesten ditudan baloreei ate asko zabaltzen dizkiena. Sentitzen dut egiten dudana horrek bere funtzioa daukala. Ez da entretenimendu hutsa; badauka bere mamia.

Bereziki herri txiki euskaldunetako herritarrek oso gustura ikusten dute saioa.

Herri txiki euskaldunetara joaten garenean, batez ere adin batetik goragoak hurbiltzen zaizkigu, eta esaten digute sarri ikusten dutela saioa edota gure zain egoten direla. Jende gazteagoak ere ikusten du; agian, beste modu batera kontsumitzen du.

Xabier eta zu bertsolariak izanda, bertsoak toki berezia du.

Bai. Egunero botatzen dugu bertsoaren bat, baina ez da bat-batean izaten. Baten batek beharbada desengainua hartuko du. Horrez gain, Andoni Egaña izaten dugu kolaboratzaile gisa. Bertsolaritzaren inguruko proposamenak ere egiten ditugu.

Saioan eginiko elkarrizketen artean, ba al da bereziki hunkitu zaituen bat? Bularreko minbizia zeukaten emakume batzuk elkarrizketatu genituen behin. Minbizia metastasi egoeran zeukan emakume batek hitz egin zuen aurrena, gogotsu eta indartsu. Minbiziarekin hil zen emakume baten irudiak ikusi genituen gero, hildakoaren alaba platoon zela. Gogoan daukat zer esan zuen metastasia zeukan emakumeak: «beldurra» sentitzen zuela. Erantzun hark eta oro har saio hartan sortu zen egoerak arrasto handia utzi zuen nigan.

Gazteako «Dida!» saioan lanean aritu zineneko zure lanetako batzuk bira-

lak bihurtu dira. Nola bizi duzu zure lanen oihartzun hori?

Ez dakit nire burbuilatxoan babesten naizen, baina nahiko lasai bizi izan dut. Behin baino gehiagotan niri ere iristen zitzaizkidan nire grabazioak! Bide horiek neuk zabaldu izanak poza ematen dit. «Dida!» saioan ere, -ia beti- umorez eta modu ludiko batean kantatzen nuen; neure ideiak pasarazteko erreminta bat izan daiteke.

Azken urteotan, askotan ikusten zaitugu pantailan edota jendaurrean, eta gainera, gauza desberdinak egiten.

Gauza bakar batean zentratuko baintz, aspertu egingo nintzateke. Aniztasuna behar dut. Gauza gehiago ere egingo nituzke, baina nire lagun batek esan izan didan bezala, «utz itzazu beste gauza horiek beste bizitza baterako».

Orduan, zein da zure lanbidea?

Zaila da horri erantzutea!

Hizkuntzarekin lan egiten duzula esan daiteke?

Egiten ditudan gauza guztietan, hizkuntza da zehar lerro gisa dagoen oinarritzko ardatza. Nire lan desberdinen ardatza euskara da. Bertso irakaslea izan naiz hainbat urtez Gipuzkoako ikastetxeetan. Irratian, telebistan eta bertsoan ere euskara darabilt. Nire lanbidea euskara dela esango nuke; horrek ematen dit jaten, eta horri eman nahi diot jaten.

**Bertsotan ere erabiltzen duzu umorea, eta normalean, mezu bat transmititzeko izan ohi da.**

Bertsoa barruko korapiloak husteko modu bat da, baina funtzio sozial edo politikoa ere badu. Nik bertsotan ez dut egingo, ezer esateko ez baldin badaukat. Askotan, umorearen bidea hartzen dut. Oihartzun handia izan zuen Doraemon marrazki bizidunen doinua hartuta, Puigdemonten ihesaz kantatutako bertso hark. Mezu oso garrantzitsurik gabeko jolas bat izan zen hura.

**Ausardiaz abesten duzula diote, alegia, ez diozula zeure buruari mugarik jartzen.**

Horretatik pixka bat badudala esango nuke. Nik neure buruari mugarik ez diot jartzen, ez baitut mugarik ikusten. Baina, agian, batzuetan, ausartegia ere banaiz. Behin baino gehiagotan esan

izan didate agian botatako bertso edo mezu hori bi aldiz pentsatu behar nuela. Ni, behintzat, sekula ez naiz damutu kantatutako ezerekin.

**Gitarra eskuan, kantatzen ere maiz ikusten zaitugu.**

Hamaika urte daramatzat erromeri talde batean. Aukera eman zaidanean kantatu izan dut, baina nik nire sorkuntza musikaletik egindako ezer ez daukat. Beti gustatu izan zait abestea. Guk ahizpa zaharrago bat daukagu, Itsaso izenekoa. Berak trikiti soinua jotzen du. Trikitixa entseatzen zuenean, ondoan hartzen ninduen, eta kantatzeko esaten zidan. Gure ama ere kantaria zen; gure etxean kanturik eta bertsorik ez da sekula falta izan.

**Itzulpengintza ikasketak egin zenuen, eta horretan ere bazabiltza.**

Pare bat urtez itzultzaile gisa lan egin nuen. Orduan hasi nintzen Asterix eta Obelixen komikiak frantsesetik euskarara itzultzen. Normalean, haurrentzako ipuinak itzultzen ditut. Orain, Idefixen komikiak ere bai. Jolasteko plaza ederra eskaintzen dit komikiak itzultzeak. Hitz joko eta txiste asko egon ohi dira, eta horiek, nolabait ere, euskarara ekarri behar dira. Batzuetan txistea ezin da literalki euskarara itzuli, zeuk sortu behar duzu, eta horrek buruko min on asko ematen dizkit. Oso lan polita da.

**Bertso eta kantu artean hazi zara. Zu gaur egun zarena familian izan duzun giro horri esker da, ala ikastolan edota aisialdian emandako orduak eragina izan dute?**

%95ean etxean jaso dudanaren ondorioz izan da. Ni ez nau sekula inork behartu bertso eskolara joatera, hori nire erabakia izan zen, baina etxean beti entzun ditugu bertsoak.

**Ipar Euskal Herrian sortu diren bertsolarietako batzuk erdal familietakoak dira, eta beraz, beste bide batetik heldu dira bertsolaritzara.**

Bai, hala da. Dena den, Ipar Euskal Herrian badago errealitate handi bat, oso ezezaguna dena hegoaldeko jende askorentzat, eta horrek pena handia ematen dit. Iparraldearen zati handi bat oso euskalduna da, eta beti egon dira bertsolariak. Bertsolaririk gabeko garairik ez dut sekula ezagutu, nahiz eta beharbada garai batzuetan bertsolari gutxi-xeago egon diren. Amets eta Sustrairen aurretik, eta Xalbador eta Mattinen ondoren, bertsolariak egon dira: Alkat, Ezponda, Xanpun... Egia da momentu askotan bertsolaritzak ez duela indar handia eduki, baina orain sekulako bultzada izaten ari da.

**Bertsolari gazte asko ikusten ari gara Xilaba bertso txapelketan.**

Oso pozgarria da. Uste dut oraindik beharrezkoa dela guk bertsotan segitzea atzetik datozen belaunaldientzako. Xilaba txapelketan parte hartzeko garaia etorri denean, sentitu dut nik funtzio bat bete nezakeela, atzetik datozen horiek ere bertsotan aritzeko gai direla sinestarazteko.

**Ahalduntze eskola abian da aspaldidanik bertso munduan. Emakume asko zabiltzate bertso plazetan, baina asko kostatzen da txapelketa nagusiko finalean emakume bat baino gehiago ikustea.**

Bereziki, 2017ko txapelketako finalean asko hitz egin zen kristalezko sabai horretaz. Final hartara ere emakumezko bakarra iritsi zen, eta horrek frustrazioa sortu zuen, oro har, bertsolariongan. Lau urteko zikloa denez, badakizu beste lau urte itxaron behar dituzula. Azkenean, 2022ko finalean gertatu zen. Ni konbentzituta nago hemendik aurrerako txapelketetan ez dela emakume bakarrek finalik izango.

**Etorkizunera begira, ze erronka dituzu?**

Etorkizunean, sorkuntzan aritzeko denbora izatea gustatuko litzaidake. Gauza berriak esploratzea gustatzen zait. Baina, momentu honetan ez daukat pentsatzeko denborarik. «Biba zuek!» saioko lana amaitzen denean ikusiko da zer ekartzen didan geroak. ■



# JON ARRETXE


■ IDAZLEA

## «Batzuetan iruditzen zait berak nahi duena egiten duela Tourek»

MIEL A. ELUSTONDO

Testua eta argazkiak

**J**on Arretxe Perezek (Basauri, 1963) dio zortea lagun izan duela; idazteari emana bizitzeko saioa egin, ausart jokatu eta asmatu zuela. Euskal Filologian doktore da –tesia Basauriko euskarari buruz egina–, eta Soin Hezkuntzan lizentziaduna. Bidaiari, eta opera kantari, nahi beste ertz eta toles ditu Jon Arretxek. Idazle profesionala da aspaldidanik, hamaika liburu argitaratutakoa, saga bat abiarazitakoa, eta, oraindik orain, sari ez txikia jaso, telesaila egingo baitute berak sortutako pertsonaia oinarri hartuz: Toure. Sagako hamargarren titulua, *Musker amarruak*, irakurtzeaz batera jardun dugu hizketan Toure inguratzen duen munduaz.





### Udan jakin genuen telesaila egiteko baliatuko dutela zure Toure saga...

Udan atera zen prentsan, bai, baina kontua zaharra da. Bi urte ere badira, gutxienez, filma egin nahi zutela esan zigutenetik eta lehenengo kontaktua izan genuenetik. Literatura-agentea dut, eta horrek, berriz, ikus-entzuzkoek arduratzen den kide bat du ondoan, eta, duela bi urte, Toureren nobelak zinemara egokitzeko kontratua lortu zuten, Espainiako bi ekoiztetxe oso indartsurekin: Tornasol Media eta DeAPlaneta. Eskubideak erosteko prozesuan, zenbait bazkide lortu zituzten: Espainiako Irrati Telebistarena eta EITBrena, besteak beste. Niri EITB proiektuan sartzeak poz eman zidan. Kontua da, azkenean, lau hanka horien gainean jaso dela proiektua. Luze jo du, baina, azkenean, ekainetik irailera grabatu zuten telesaila. Udaberrian emitituko dute.

### «Detective Touré» iragarri dute, gaztelaniaz, alegia, nahiz zuk, jatorrian, nobelak euskaraz idatzi.

Espainiako Irrati Telebistak gaztelaniaz estreinatuko du, eta euskarara bikoiztuta emango du EITBk. Hala ere, euskaraz estreinatuko da telesaila, eta horrek ere poz handia eman dit: martxoan-edo estreinatuko du EITBk euskaraz, eta, ondoren, gaztelaniaz emango du Espainiako Telebistak.

### Toureren sortzailea zaitugu, baina, filma egin ahal izateko, hor ibili behar izan dute ekoiztetxeek, babesle bila eta gainerako lanetan. Non gelditzen da idazlea halako saltsa gizen batean?

Batzuetan, pertsona inportante moduan gelditzen da, eta beste batzuetan, aldiz, guztiz baztertuta. Ikus-entzuzkoetan ari den zenbait jende ezagutzen dut –gidoilariak, batik bat–, eta batzuekin eta besteekin hitz egin nuen

gai honetaz. Esan zidatenez, kontratua sinatu orduko, idazleak saldua omen dio arima deabruari; diru truke, jakina. Sinatu eta gero, ekoiztetxeak-eta guztiz ahazten dira idazleaz. Hori omen da ohikoena. Ni, berriz, pozik nago, ze kontuan hartu naute hasieratik. Sinatu dudak kontratuak dio, sinatu ondoren, gidoilariak libre direla pertsonaia nahi duten modura egokitzeko. Baina orain-txe esan dut ni kontuan hartu nautela, eta egia da. Ondo tratatua sentitu naiz, ze ni gidoilaria ez izan arren, gidoiak erakutsi dizkirate, nik irakurtzeko eta nire iritzia emateko. Eta oharrak-eta egin dizkiet, eta batzuk kontuan hartu dituzte, eta beste batzuk ez. Inportanteena da, ordea, marra gorriak errespetatu dizkidatela.

### Zein zenituen marra gorri horiek, jakin badaiteke?

Bata zen, esate baterako, telesaila San Frantzisko auzoan (Bilbo) grabatzea, ni auzo horrekin zorretan sentitzen bainaz, eta, gainera, uste dut hedabideak oso bidegabeak izan direla, eta direla, auzo horretaz hitz egiten dutenean. Beraz, San Frantziskon filmatzea nahi nuen, eta ekoiztetxeekoa baietz esan zidaten, hasiera-hasieratik. Are gehiago, esan zidaten horixe zela euren asmoa. Bestalde, nire nobeletako kritika soziala telesailan ere agertzea eskatu nuen. Kontuan hartu behar da Toureren nobeletan kritika soziala oso handia dela, gero eta handiagoa, eta hori ere marra gorria zen. Hasieran, bide batez bezala egiten nuen kritika hori, baina lehenengo liburitik hamargarren honetara, gero eta kontzienteago egin dut kritika soziala, gero eta militanteagoa bihurtu naiz, eta bidegabekeria sozialen kontra egin dut. Nobeletan dagoen karga telesailan ez desagertzea nahi nuen. Eta neurri handi batean lortu dudala esango nuke. Horrekin ere nahiko pozik nago.

## «Buruhauste itzela izan zen, zer euskara jarri Toureri»

### Horiexek zure marra gorriak...

Eta Toure bera afrikarra izatea!

### Baldinbaitere!

Ez dago jakiterik! Kontratua sinatu orduko, edozer gauza egiten dute ekoizleek. Nire kasuan, marra gorri horiek neuzkan, eta, zorionez, errespetatu dizkirate. Eta pertsonaia nagusiari, eta Toureren lagun hurkoei dagokienez, eutsi diote haien afrikartasunari. Nire nobelak irakurri dituen konturatuko da zertan ibili diren gidoilariak: nik asmatutako trama hartu eta zenbait trama txiki asmatu dituztela; batzuk, partez asmatu, eta beste batzuk, aldiz, ehuneko ehunean, ez direla nire nobeletako gauzak. Baina, esan didatenez, guztiz normala omen da gidoilariak horrela jokatzeko eta, beraz, hasierako sustoa pasatuta, nire marra gorri horiei eusten saiatu naiz, besterik gabe.

### Toureren sagako hamargarren tituluarekin batera etorriko da telesaila...

Bai, *Musker amarruak* da sagako hamargarren liburua... Hamar urte baino gehiago dira Toureren lehen lana idatzi nuenetik: *19 kamera* [2012]. Handik hona ikaragarri aldatu da Toure; pertsonaia, esan nahi dut. Lehenengo nobeletako Toure gizajo hutsa da, etorkin heldu berria, txotxongilo samarra... Diru premia du, eta behar den guztia egiten du diru apur bat eskuratzeko. Beti pikaro, iruzurti, igarle, gigolo, zezen suzko... Gurean inork egin nahi ez dituen lanak egiten ibiliko da beti, eta,

## «Beharbada nobela guztien artean txarrena da *19 kamera*, baina arrakasta eduki zuen, gehiago idazteko adorea eman zidan»

nobelatik nobelara, egingo dizkioten putakerien ondorioz, Toure gaiztatu egingo da, ozpindu eta garraztu. Oraingo Tourek ez du ikustekorik lehenengo harekin. Oraingoa edonor akabatzeko gabe akabatu ere-, honainoko bidean denetarik egin baitu: poliziaren txibato izan da, eta sikario, eta astintzaile, eta beste gauza asko.

### Zein heinetan ikusiko dugu Toure-ren bizimodu latz hori pantailan?

Aurretiaz jakinarazi zidaten nobelak gogorregiak zirela bere horretan telesail bihurtzeko. Gidoilariak nire lanetatik hartu dute, batez ere, tramarik arinena, umoretsuena, eta bazter utzi dituzte eszenarik gordinenak. Jakina, ahal den eta ikusle gehien bildu nahi dute, familia osoarentzako telesaila dute buruan, eta horren barruan sartzen da, adibidez, Toure poliziaren lagun-edo bilakatzea. Baina, izatez, Tourerentzat, eta etorkin paperik gabeko batentzat, bizitza errealean polizia da beldurrik handiena, eta hala da idatzizko sagan: Tourek polizia beti du etsaia, berdin da bera Parisen dabilen, Nafarroan, Madriren edo Las Palmasen. Polizia zenbat eta urrunago, orduan eta hobeto Tourerentzat. Telesailean, berriz, ertzainen kide-edo bihurtuko da Toure. Ez zidan grazia handia egin, baina...

### Toureren nobelak idazten ari zarela, nork agintzen du? Pertsonaiak berak ala zuk zeuk?

Nik Toure bizirik dagoela sentitzen dut, eta, batzuetan, iruditzen zait nahi duena egiten duela! Ni idazten hasten naiz, baina Toure zer izango den jakin gabe, hurrena zer egingo duen ez dakidala. Idatzi ahala, berriz, hori eta hura gertatzen dira, eta protagonismoa hartzen du Tourek, eta bere bidea egiten du. Nik, berriz, utzi egiten diot; bide hori logikaz kateatuta baldin badator, behintzat. Kasu horretan, aurrera!

### Euskaraz mintzatzen da Toure, bistan dena. Eta nola erabaki zein euskarara mota jarri Toureren ezpainetan?

Buruhauste itzela izan zen hori, zein euskara jarri Toureri. Eta ez Toureri bakarrik, pertsonaia guztiei baizik, ze Euskal Herriko lumpen handieneko jendea da nire nobeletakoa, eta hor ez da euskararik erabiltzen. Etorkinak dira, kaleko prostitutak, gaizkileak... Hasieran, larritu egin nintzen, zein hizkuntz maila erabili behar zuten asmatu ezinik: «Tourek ezin du hitz egin narratzaile orojakile baten modu dotorean, arrunt hitz egin behar du, baina arruntegi ere ez; nobela osoa arrunt hitz eginez aritzen bada, irakurleari nekagarri gertatu ahal zaio...». Eta oreka puntua bilatzen saiatu nintzen.

### 2012an, Toure idazten hasi zinenean, zein intuiziorik jardun zenuen?

Zenbait nobela beltz idatziak nituen Toureren lehenengo baino lehen. Aurreko haiek ere oso gogorrek ziren; gainera, amaiera tragikoa zuten beti: pertsonaia nagusiak hil egiten ziren eta, orduan, ezinezkoa zen sagarik osatzea. Hala ere, irakurle batzuek horixe esaten zidaten, pertsonaia bat asmatzen saiatzeko. Eta kasu egin nien, eta asmatu nuen Toure. Baina lehenengo Toure hura esperimentu hutsa izan zen

niretzat. Pertsonaia asmatzen hasi nintzenean, morroi ezberdina izatea nahi nuen. Baina nobela beltzaren barruan zerbaite ezberdina egitea ezinezkoa da gaur egun! Milaka nobela beltz zoragarri daude munduan! Ipar amerikarrak, ipar europarrak, frantziarrak... Zer asmatu behar nuen nik, ezberdina, irakurle harritu ahal izateko?

### Toure!

Nobela beltzak poliziaz eta polizia ohiz beteta daude... Eta, horretan, Toure asmatu nuen, bai. Ez da detektibea, da etorkina; mundu honetan bizirik iraun nahi du, besterik gabe. Ezaugarri horiekin hasi nintzen, originaltasunaren bila, esperimentu bat egiten, ea zer gertatzen zen. Eta *19 kamera* idatzi nuen. Trama aldetik ez du gauza handirik, baina pertsonaiekin asmatu nuen. Kasualitatez, beharbada, baina asmatu nuen, ze konturatzen naiz irakurleari pertsonaia gustatu egin zaiola, estimatzen duela. Eta, bestalde, uste dut kokagunearekin ere asmatu dudala, Bilboko San Frantziskorekin. Zenbait obratan aipatzen da San Frantzisko, baina literaturan gutxi landutako tokia da... Eta saga osatzen hasi nintzen Toure eta auzoa, biak beti guztiz presente nituela, eta asmakizuna oso ondo atera zen. Esan dizut, beharbada nobela guztien artean txarrena da *19 kamera*, baina arrakasta eduki zuen, gehiago idazteko adorea eman zidan, eta sagan hamar liburua dira orain.

### Eta San Frantzisko auzoan bertan bizi zirela idatzi zenuen *19 kamera*...

Bai. Baina hala egin ohi dut beti. Liburuaren trama non kokatzen dudana, hara joaten naiz idaztera. San Frantziskora joan nintzenean, pisu bat utzi zidaten, debalde, auzoko kale nagusian. Hango egonaldia esker idatzi nuen lehen nobela haren erdia. Han, balkoitik begira jartzea, edo ondoko plazara joan



eta hango giroa ikustea, nahikoa dira tramak eta istorioak asmatzeko.

**Oraingo Musker amarruak honetan ere etengabeak dira San Frantzisko auzoari buruzko erreferentziak. Haatik, oraindaino arte ibili gabeko tokian da Toure, Kanarietan.**

Sagak oso arriskutsuak dira, monotono bihurtu daitezke eta. «Halako detektibearen kasu berri bat», esatea bezala. Ni aspertu egiten naute beti detektibe beraren istorioek. Pertsonaiak eboluzionatzea nahi izaten dut, aldatzea, trama ere berritzea... Horretarako, lagungarri izan daiteke kokaguneak aldatzea, pertsonaia tokiz mugitzea. Bestalde, badakit Toureren nobelak haren jarraitzaileek irakurriko dituztela, eta horiek ez dutela azalpenik batere behar: ezagutzen dute Toure, badakite nondik datorren. Tartean irakurle berriak ere izango dira, ordea, eta haiei zer edo zer esan behar zaie protagonistari buruz, eta horregatik egiten ditut behin baino gehiagotan San Frantzisko auzoaren aipamenak, hango lagunak eta halakoak. Hala ere, oreka bilatzen saiatzen naiz: irakurle berria informatzen, bai, baina irakurle zaharra ez aspertzten. Saga batean, nire ustez, oreka hori lortzea da gauzarik zailena.

**Toure bera dugu narratzaile beti...**

Bai, lehenengo pertsonan ari da beti. Oso apustu arriskutsua iruditu zitzaidan lehenengo pertsonan idaztea, baina «ea zer ateratzen den» esan, eta egin nuen. Ni ez naiz beltza, ez naiz etorkina... ez daukat bertute askorik... ezpada enpatia. Uste dut, edo sentitzen dut, besteren buruan sartzeko erraztasuna dudala –ez naiz inoiz inoren buruan guztiz sartuko, jakina–, baina gustura mugitzen naiz giro horretan, eta hortik jotzen dut. Gainera, afrikar asko ezagutu ditut hango kontinentean, eta hemen ere handik etorritako asko ezagu-

tzen ditut, eurekin asko hitz egindakoa naiz. Nik zuri garenon, ondo eta eroso bizi garenon kontzientzia astindu nahi dut, ea, neurri batean bada ere, gizartea sentsibilizatzea lortzen dugun, eta kanpotik etorri den jende hori ulertze- ra heltzen garen. Horra nire semearen egoera ere.

**Zer esan nahi duzu, zure «semearen egoera»? Zer du Atikiltek?**

Atikilt afrikar jatorrikoa dela. Uste dut berak ere badaukala zer ikusia nik saga hau idaztearekin. Lehen, umea zenean eta herrian bizi ginenean, Arbizun, besteak bezalakoa zen, askoren arteko bat. Orain, aldiz, ikastera hirira etorri, eta, askorentzat, beltz bat baino ez da, etorkina. Gainera, orain, eskuin muturraren oldarraldi gero eta handiago hau bizi dugun garaian, oso sasoi txarra da *ezberdina* denarentzat. Ez dakit nire semea zelan sentitzen den, baina detailak ditut: nirekin doanean, era batera begiratzen dio jendeak; bakarrik doanean, edo denda batera bera bakarrik sartzen denean, diferentea da dendariaren begirada.

**Gogorra berarentzat, eta mingarria aitarentzat.**

Horregatik naiz gero eta militanteago, eta saiatzen naiz gero eta gehiago horren guztiaren kontra. Eta, bestalde, jende askok esan dit Toureren nobelak irakurtzen dituenetik beste modu batera ikusten dituela etorkin afrikarrak, errespetu handiagoarekin, enpatiaz, elkartasunez... eta horrek ni zoriontsu egiten nau. Beti pentsatu izan dut idazleak ez garela gizartea aldatzeko gai, gizajo hutsak garela, baina jendeak halako gauzak esaten dizkidanetik, pentsatzen dut beharbada zertxobait egin dezakegula, eta nobela entrenigarriak egiteaz gainera, irakurlea sentsibilizatzea lortzen badugu, ongi etorri!





### **Musker amarruak honetan, etsitze-ko zorian da Toure, European segitu, edo Burkina Fasoko etxera itzuli ez-baian...**

Etorkin gehieneko egoera hori da eta! Hona heldu, eta batzuei oso ondo ateratzen zaizkie gauzak, baina gehienak bestela bizi dira. Hemen hamar urte daramatzaten etorkin asko ezagutzen ditut, eta oraindik ilegalak dira, Toure bezain ilegal! Haien bizimodua gogorra da, istorio arrosarik ez dago. Bidegabekeria. Gu noiznahi joan gaitezke Tangerera, haiek etorri ez. Guk egin nahi ez ditugun lanak egiten dituzte, kontraturik gabe, askotan. Kontratu eskatzen dutenean –pisu bat alokatzeko, adibidez– “Ez daukazu kontraturik, ez dizut etxerik alokatuko”, esaten diete. Eta beti horrela, hamar urtez Toureren telesaila egiten ere ikusi dut hori.

### **Hemengo aktoreak dira-eta!**

Baina figuranteak ere behar izaten dira. Eta “figuranteak behar ditugu!” esan, eta han zeuden, San Frantziskon bizi diren etorkin asko, ilaran, figurante izateko eta egunean 50 edo 60 euro kobratzeko prest. Baina figurante izate-

ko ere paperak behar dira! Nire semea, adibidez, figurante izan da, behar diren pasaporte eta agiri guztiak ditu; baina San Frantziskoko lagun asko ezin izan dira figurante izatera aurkeztu ere egin, agiririk ez dutelako. Eta, bitartean, guk printze-printzesa izaten jarraitzen dugu Afrikara goazenean. Bitxia da. Haiek etortzen direnean, guztiz kontrakoa da. Beti susmagarri dira. Osman pertsonaia Toureri bai nobelana eta bai telesailan esaten diona, adibidez: «Guk hemen inork baino hobeto jantzi behar dugu, inor baino *baskoagoak* izan behar dugu, Athleticen elastikoa jantzi behar dugu... Gauzak perfektu egin behar ditugu, onartuak izateko, txarto ikusiak ez izateko!». Eta egia hutsa da, horrela da gauza.

### **Esaten dute errealitateak fikzioa gainditzen duela. Horrela da Toureren kasuan?**

Topikoa da esaldia. Behin eta berriz errepikatzen du esaldi hori mundu guztiak, eta jada ez dakit zer den egia eta zer ez. Hala ere, askotan errealitateak fikzioa gainditzen duela egia da, dudarik gabe. Batzuetan ezin da errealitatea sinetsi.

Eta idatzi; gainera, askok ez du sinesten. Eta, hala ere, sinesgarri bihurtu behar duzu zure literatura lanetan.

### **Eskaintza berezi bat irakurri dugu Musker amarruak liburuaren atariko: «Onenari, Alexis Ravelo handiari».**

Hain zuzen, Alexis Ravelo da oraingo liburu hau Las Palmasen kokatzeko arrazoi nagusia; hari omenaldia egin nahi izan diot. Niretzat, generoan [polizia-nobel beltza] Espainiako idazlerik onena izan da. Beti esan dut, aspaldi nabil hori esaten, ez naiz orain esaten hasi hil delako. Kristoren idazlea izateaz aparte, lagun handia nuen. Idazle bikaina izateaz gainera, hizlari ikaragarria zen. Askotan egon naiz mahai-inguruetan haren ondoan, eta lotsa ere ematen zidan haren ondoan jarrita egoteak: zen eruditua, atsegina, komunikatzaile bikaina. Eta, berriz esango dut, oso idazle ona!

### **Iragan urtarrilean hil zen, bat-batean.**

Eta ni urtarrilean bertan egon nintzen Kanarietako La Palma uhartereko Aridane Criminal genero beltzari buruzko jaialdian. Toureri buruz hitz egitera gonbidatu ninduen. Handik astebeterra hila zen! Hura disgustua, eta hura atsekabea! Han egon nintzen astean, elkarrizketa egin zidan kazetari batek, eta zera esan zidan: «Toure hona ekarri beharko zenuke. Las Palmasen bada auzo bat oso interesgarria, La Isleta du izena». Eta nik: «Izan liteke. Behar bada», hamar urte barru!». Ez zegoen nire asmoen barruan. Baina Alexis hil zela esan zidatenean, Toure Las Palmasen ibilaraziko nuela erabaki nuen.

### **Eta nobelana, hortxe da Eladio Monroy izeneko morroia.**

Bai, Alexisek asmatutako pertsonaia. Berak sei nobelako saga idatzi zuen



## «Jende askok esan dit Toureren nobelak irakurtzen dituenetik beste modu batera ikusten dituela etorkin afrikarrak, errespetu handiagoarekin»

Eladio Monroy pertsonaia nagusi hartuta, eta *kameoa* egingo nuela pentsatu nuen, Eladio Monroy nire nobelan agertuta. Baina *kameoa* egitea pentsatuta ere, libre utzi nuen Eladio Monroy. Eta zelan nobela bat idatzi aurretik ez dudan eskaletarik egiten, zelan ez dakidan non hasi eta non eta zertan amaituko dudan nire lana, bada, Monroy traman sartzen hasi zen, gero eta barrurago sartzen, eta, azkenean, garrantzia hartu du *Musker amarruak* honetan. Alexisen irakurleak konturatuko dira, besteak ez, baina Ravelori eta Monroyri keinu pila bat egiten zaie lan honetan.

**Arestian, *kameoa* aipatu duzu, eta hortxe dabil zerbitzari bat, flamenko eta opera kantari. Zu zeu ere opera kantari zaitugu. Ez dakit hori ere *kameoa* dugun...**

Nik benetako *kameoa* telesailean egin dut. «Egingo zenuke *kameoa*?», galdetu zidaten, eta nik: «Bai, bai, jakina! Ager-tu egin nahi dut, ilusioa egiten dit». Bazekiten opera kantari ibili naizela urte askoan, eta esan zidaten: «Telesailean behar dugu morroi bat, koruan sartzeko proba egiten ari dena. Aria bat kantatu behar du zuzendariaren aurrean... Paper labur hori». Eta egin nuen. Segundo batzuk irauten du, oso paper sinpatikoa da, eta pozik egin dut.

**Alexis Raveloz ari ginela, arreta eman dit hark bere burua aurkezteko moduak: «Kanaria Handiko Las Palmaseko eskribitzaile kaskazuria. Krimen eleberriak, ipuinak eta mikroipuinak, haur eta gazteen-tzako liburuak, antzerkia eta telebista eta, oro har, idatz daitekeen eta chopped ogitartekoak janez bizirik irauten laguntzen duen edozer».**

Beti gauza bera esaten zuen, txantxetan: «Ni bizi naiz chopped ogitartekoak janez, eta garagardo merkea edanez». Horixe idazten zuen bere nobeletako

kontrazaletan ere, eta hori ere Toureren nobela honetara ekarri dut. Normalean prekarioro bizi da idazlea. Ia ezinezkoa da idaztetik bakarrik bizitzea. Ni idaztetik bizi naiz, baina beti esan izan dut pribilegiatua naizela, kristoren zortea izan dudala nire zenbait liburu bestseller izan direlako; batzuk, gutxien espero nuenean. Zenbait liburu ikastetxeetan zabaldu dira, eta, horri esker, hitzaldiak emateko deitzen didate... Eta ez da bizimodu prekarioro, baina bada, idazleok ez baitaukagu soldatarik, saltzen dugunaren arabera kobratzen dugu, egile eskubideen aldera. Zortea baldin baduzu, eta asko saltzen den liburua idazten baduzu, asko kobratuko duzu; eta, bestela, zero. Politu da ziurgabetasun hori.

**Zeuk aukeratua duzu ziurgabetasuna, unibertsitateko irakasle izan baitzinen sasoi batean...**

Hiru urtez izan nintzen UPV/EHUko irakasle [Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea], eta hilero jasotzen nuen soldata. Baina horrek larritu egiten ninduen. Erosotasuna, burgestea... hori baino emozio handiagoa behar nuen nire bizitzan, eta utzi nuen irakasletza, idaztetik bakarrik bizitzen ahalegintzeko, eta nahi nuenean bidaiatzeko, ez bakarrik udako hilabete eta erdian. Horrek ere asko estutzen ninduen. Eta, horrela, proba egin nuen, ausartu nintzen, zorte handia izan nuen –Tourek ez bezala, Tourek ez dauka-eta halako zorterik–, eta aurrera.

**Elkarrizketaren amaierara heldu gara, zure azken Toure honen liburuaren amaierako esker oneko hitzekin batera. «Eskerrik asko nobela hau hobetzen, eta sinesgarriago egiten, lagundu didaten adiskide kanariar guztiei», eta, ondoren, izen-zerrenda luzea. Tartean, *Thalía Rodríguezena*.**

Alexis Raveloren neska-laguna, *Thalía*, eta Alexis zenaren Kanariar Uharteetako hainbat lagun eta adiskide handi, bai... Lau aldiz egon naiz aurten Las Palmasen. Aurreko lanetan bezala egin dut: nobela non kokatu dudan, haraxe joan, inspiratzera eta zati bat idaztera. Eta Las Palmasen egon naizen aldietan, eskerrak emate horretan aipatzen ditudan horien laguntza jaso dut. Haien izenak, gutxienez, eman behar nituen! Dokumentatzen lagundu naute, hanka sartze handirik ez egiten. Ezer idazten dudanean, tokiko jendea imajinatzen dut nik idatzitakoa irakurtzen.

**Gogoan dut zure *Tangerreko ametsak*, Tourerena ez bada ere.**

Hango jendea gogoan neukala idatzi nuen *Tangerreko ametsak*. Ez dut pentsatzen Tangerren inoiz egon ez den irakurleagan, zeren hari erraz sartuko diot ziria. Berdin pentsatzen nuen bidaia liburuak idatzi nituenean ere. Ngorongorokoa kontatzen dudanean, nire helburua da Ngorongoroko balizko irakurleak sinesgarritasuna ematea nik idatzitakoari. *Tangerreko*, adibidez, euskaraz idatzi nuen, baina gaztelaniaz argitaratu zuten gero, eta zenbait tangertarrek irakurri zuten, eta esan zidaten: «Igartzen da, bai, han ibilia zarelak!». «Zer ondo!», pentsatu nuen nik. Eta oraingo nobela hau ere gaztelaniaz ateratzen denean, hemendik hilabete batzuetara publikatuko baitute erdaraz, nahi dut Las Palmaseko irakurleek hori esatea: «Igartzen da idazlea hemen ibili dela, dokumentatu dela, jendea-ri galdezka ibili dela...», zeren eta, egia esan, horixe egin dut!

**Zinemara jauzi egin du Tourek, eta esango nuke erraz antzean egin lezakeela jauzi komikira ere...**

Niri ihes egiten dit mundu horrek, baina norbaitek proposatzen badit, aurrera! ■

# Mugikorraren sarean harrapatuta ez geratzeko ekintza kolektiboen bila

JON GONZÁLEZ DE REPARAZ  
Kazetaria



Argazkia-Freepik

**S**akelakoaren erabilera goiztiarrak edota desegokiak eragina du umeengan, eta horrek kezka, zalantza, beldurra eta buruhauste ugari sortzen ditu eskolako jolastokiko gurasoen berbaldietan, baita gelako Whatsapppeko eztabaidetan ere. Hori dela eta, gurasoak, ikastetxeak eta erakundeak batera ari dira lanean haur zein gazteen artean telefonoa izateko adina atzeratzeko. Dagoeneko hasiak dira erantzunak aurkitzen eta proposamenak sortzen puri-puritan dagoen afera honen gainean argia jartzeko.



Zeharo txertatuta ditugu teknologia berriak gure bizitzan, egunerokotasuna errazten digutelako; hainbat baliabide, tresna eta aukera jartzen dutelako gure esku, eta beste mundu eta errealitate batzuetara leihoak irekitzen dizkigutelako. Horren erakusle mugikorra dugu, besteak beste; eta hori baliatuta komunikatzen, informatzen, dibertitzen eta entretenitzen gara. Bertute horiez guztiez liluratuta, gazteek mundu digital hori esploratu nahi dute, eta leku erakargarri horretan beren tokia aldarrikatzen dute. Hori dela eta, gero eta goizago eskatzen dute mugikorra izatea, eta horrek ezinegona, kezka eta gurasoen eta gazteen arteko tirabirak sortzen ditu.

Aitor Pérez de San Román Fernández de Larrinoa Gasteizko Urkide ikastetxeko maisua eta zuzendaria da. Horren ustez, ez diegu haurrei sakelakorik erosi behar, «inola ere ez», bigarren hezkuntza hasi baino lehen; hau da, 12 urte bete arte. «Are gehiago, erosketa hori atzeratu beharko genuke derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren ziklora arte (14 urte), eta beti gurasoen kontrolarekin eta denbora- eta espaziomugekin», ohartarazi du.

Dena den, egia zor, gaur egungo haur zein nerabe askok lehenago eskuratzen dute desiratutako aparatua. Batetik, gazteek egiten duten presioari amore ez ematea oso zaila delako, mugikorrek taldearen parte sentitzen laguntzen omen baitie: «Ez dugu nahi gure semea gelako azkena izatea mugikorra erabiltzen, bestela baztertuta geratuko da», diosku kezkatuta eskolako sarreran dagoen ama batek. Bestetik, gurasoen artean ez dagoelako batasunik egoerari aurre egiteko, eta familia bakoitzak etxean hartzen du erabakia ahal duen moduan. Horrenbestez, gurasoek batera jokatzera egiten dute deia, bestela mugikorra izateko adina atzeratzea ez da posible izango, eta helburu hori lor-



Argazkia-Vitolda Klein, Unsplash

tzeko hainbat ekimen abiarazi dituzte. Azkenik, haur batzuek goizegi jasotzen dute mugikorra edo erloju adimendua benetako beharrik izan gabe, soilik gurasoek seme-alaba kontrolatzeko premia dutelako, edo, besterik gabe, helduen lasaitasunerako.

Bistan da azken urteotan gurasotasuna asko aldatu dela, eta batzuetan gurasoen beldurrak eta haurrak kontrolatzeko beharrak gazteen autonomia eta autokonfiantzaren aurka doazela. «Arriskutsua da gure haurrek *maitasun* eta *kontrol* kontzeptuak bateratzea. Batzuei osasuntsu eta normala iruditzen zaie gurasoek haiek kontrolatzea; hori aurrerago bikote-harremanera eramaten badugu (diferentziak diferentzia, noski, gu gurasoak garelako), ez al da arriskutsua kontrola normalizatzea?», airean utzi du Miren Ros Aiertzaguena hezitzaileak eta Bidelagun. eus proiektuaren sortzaileak. Hain zuzen ere, hark zuzentzen duen egitasmo horren helburua da haur eta nerabeen hazkuntza eta heziketaren inguruko gaiak familiarekin jorratzea (teknologia eta sakelakoren erabilera barne), eta,

erronka horri aurre egiteko, hainbat guraso-eskola, ikastetxe eta entitateri laguntzen die.

### Kezkatik ekintzetara

Heldu askok ezinegon bera dutela ikusita, guraso-taldeak sortu dituzte hainbat eskolatan elkarrekin otsoa belarrietatik hartzeko. Hausnarketa eragiten dute, estrategiak adostu, formakuntzak antolatu edo eskaini... soinez soin bidea egiteko. Aiertzaguena Zarauzko ikastolako beste lau gurasorekin batera *Gure aukera, guk 16* ekimena sustatu zuen 2019an telefono adimendua, gazteei oso goiz ematen zitzaielako kezkatu. Taldearen xedea da 16 urte bete arte mugikorrik ez ematea, baina jakitun dira hori helmuga dela, eta aurretik bidea egin behar dutela: «hobe 14 urterekin 9rekin baino, baina 16 da helburua», dio hezitzaileak. Horretarako, garrantzitsua da jendea biltzea, begietara so egitea eta esperientzia eta iritziak elkarbanatzea. Tailer edo kafe-tertuliak egiten dituzte lan-ildo hauek lantzeko: kontzientziazioa eta paktuak beste guraso batzuekin. Aiertzaguena iru-



*Altxa Burua!* gurasoen elkartearen 2023ko azaroaren 8an Tolosan antolatutako Gipuzkoako taldeen bigarren bilkura.

dikoz, gurasoek garbi izan behar dute zein diren mugikorraren arriskuak, eta, ahaldunduta badaude, errazago atxikiko dira konpromisoetara. Taldearen aburuz, aurrerapausoa itzela izan da: «lanketa egin dugun eremuetan, aldatuta izugarria izan da; kontzientzia-zio handia ikusten ari gara, eta oso pozgarria da». Gainera, mugimendua beste ikastetxe batzuetara zabaldu dute, eta taldea sortu zutenetik nahi bera duten 50 guraso-talde jarri dira martxan Euskal Herrian. «Hori ederra da», pozik azpimarratu du taldekideak.

Modu bertsuan, 9 gurasok *Altxa Burua!* taldea sortu zuten Tolosan, 2021-2022 ikasturtean. Herriko hiru ikastetxeetako (Samaniego-Orixe, Herrikide eta Lasko-

rain) guraso-elkarteak biltzen ditu pantaillen erabileraren inguruan hausnartzeko, pauso txikiak ematen ari diren gizartearen eragiteko eta teknologiaren erabileran trebatzeko. Gurasoen ekimena izan da, baina ikastetxeen laguntza izan du, baita udalarena ere. «Hasieratik, hiru ikastetxeetako gurasoen parte hartzea oso garrantzitsua izan da, eta oso modu natural eta errazean egin dugu bat», dio Itziar Arana taldekideak. Hitzaldi eta ekintzak antolatzen dituzte auziarekiko ardura zabaltzeko eta kontzientzia pizteko, eta hori nahikoa ez dela, pasa den 2023ko azaroaren 8an, Gipuzkoan antzeko helburuak dituzten taldeen bigarren lurralde-bilkura antolatu zuten Tolosan. Zehazki, 60 kide eta 27

talde inguru elkartu ziren «sarea osatzeko, aurrera eramandako proiektu nahiz kanpainak azaltzeko, lan egiteko moduak ezagutarazteko eta beste taldeetatik ikasteko», azaldu dute antolatzailuek. Halaber, pasa den irailean, *Geurea erabili dezakezu* kanpaina aitzindaria bultzatu zuen *Altxa Burua!* gurasoen elkarteak. Ekimen horren xedea da nerabeak (edo edonork) telefonoz deitzekeo beharra badu, udal eraikinetakoak eta dendetakoak erabiltzea. Tolosa&Co elkarteko saltokiek bat egin dute ekimenarekin, eta udalak ekimena babestu du itsasgarri identifikagarriak diseinatu eta erabiltzeko publikoetan eta lokaletako erakuslehoetan jartzeko. Horiei esker, nerabeak erraz identifikatu ditzake egi-



tasmoarekin bat egin duten saltokiak; beraz, sartu eta telefonoa erabili dezakeen galdetzea besterik ez du. Den-dariak proiektua ezagutzen dutenez, ez dute inolako eragozpenik jarriko. Sus-tatzaileen esanetan, egitasmo honen bidez baretzen badugu nerabeen beharra mugikorra erabiltzeko, sega-potoa eskuratzeko adina atzeratu ahal izango dugu. Ekimena hain izan da arrakastatsua ezen Tolosatik kanpoko zenbait herrik, baita Kataluniakoak ere, kanpainenaren aldeko interesa adierazi duten. Egoerak berak markatuko du zein den hurrengo pausoa, baina «gure aldetik ez dago inolako eragozpenik irudi bera erabiltzeko», azaldu du Aranak.

Era berean, ikastetxe asko neurriak hartzen hasi dira familiarekin elkarlanean. Fernández de Larrinoak dio tresna digitalak erosteko aholkuak eta informazioa ematen dizkietela familiei; eta batera diseinatzen dutela eskolako plan digitala, maila bakoitzeko gailuak eta horien erabilera-denborari buruzko gomendioak jasotzeko. Halaber, aurten beste urrats bat eman dutela azaldu du: Haur Hezkuntzako lehen ikasturteetatik abiatuta, borondatezko akordioetara iritsi nahi dute familiarekin gailuen erabileraren inguruan (erosketatik haratago) konpromiso zehatzak hartzeko. Esate baterako, Urkide ikastetxearen 2-4 urteko haurrak babesteko itunaren arabera, familiek honako konpromiso hauek hartu dituzte: haurrei pantailak ez utzi; elkarrekin egoteko momentuetan disfrutatu mugikorrik edo antzeko aparatu elektronikorik gabe (paseatzean, bazkalorduan, jolastean...), eta gurasoek sakelakoaren erabilera mugatu sozializazioari edo familiari emandako denboran. Bestalde, ikastetxeak berak ere konpromisoak hartu ditu eskola «mugikorrik gabeko gune» bihurtzeko, baita ikasleen, irakasleen eta familien gailu elektroniko eta pantailen erabilera esparru guztietan (gelan, jolastokian...) aztertzeke ere.

### Heldutasuna, formakuntza eta kontzientziazioa, gakoak

Gazte bat mugikorra izateko prest dagoen ala ez jakiteko, hiru irizpide hauek hartu behar dira kontuan: heldutasuna, formakuntza eta kontzientziazioa. Horien arabera gazteari sakelakoa ematea erabaki badugu, nola egingo dugun oso garrantzitsua da. Aiartzaguenaren iritziz, ez diogu opari moduan eman behar, normalean opari bat baldintzarik gabekoa delako, ondorioz, jasotzen duenak nahi duena egin dezakeelako berarekin, berea delako. Beraz, gomendatzen du tankera honetako formulak erabiltzea: «Mugikorra erosi dugu; zuk erabiliko duzu, baina gurea da. Gailua zaintzeaz zu arduratuko zara, eta baldintza batzuk izango dituzu. Gurasoek modu egokian erabiltzen duzula jakin behar dugu, eta, horregatik, edozein momentutan zure mezuak elkarrekin irakurtzeko aukera izango dugu». Horrez gain, kontratu bat sina daiteke familiak erabakitzen dituen arauak zehazteko; adibidez, jatorduetan ezin da erabili, egunean denbora jakin batzuetan, gauean mugikorrek logelatik kanpo (baita helduok ere)... Gainera, adituaren iritziz, telefonoa era mailakatu eman behar zaio: hasieran etxean bakarrik erabiltzeko, momentu konkretuetarako, leku jakin batzuetan eta ekintza batzuetarako, eta, aurrerago, akordioa zabaldu ahal izango da. Azkenik, «mugikorra eman aurretik hasi dugun heziketa jarraitu behar dugu, eta gaztearekin arriskuez hitz egitea funtsezkoa da», dio Aiartzaguenak.

Eta goizegi eman badiogu sega-potoa, nola konpondu dezakegu hutsegitea? «Heziketa eta kontrola», sendoki erantzun du Aiartzaguenak. Prozesu hori «gaztearekin egin behar da, eta helburu pedagogikoa izan behar du benetan ikasketa bat egon dadin», amaitu du.

## Mugikorraren erabilpen egokirako dekalogoia:

(adinera eta etxe bakoitzaren errealitatera egokitu beharrekoa)

- 1 Helduok eskatzen dugunaren eredu izan behar dugu.
- 2 Mugak jartzeko orduan, hobe gutxi baina tinko.
- 3 Telefonoa ez da denetarako gailu (esnatzeko, adibidez, hobe da iratzargailua erabiltzea).
- 4 Erabiltzeko ordutegiak ezarri eta jakinarazpenak mugatu edo isildu.
- 5 Erabiltzeko eremuak mugatu.
- 6 Aurrez-aurreko harremanak lehenetsi eta errespetuzkoak izan daitezela beti.
- 7 Mugikorra ez da oparia (ezta zigor neurria ere).
- 8 Kontrolerako aplikazioak ez dira mugak jartzeko konponbidea, komunikazioa da gakoa.
- 9 Helduok interesa izan behar dugu ulertzeko seme-alabek kontsumitzen dutena zergatik den garrantzitsua beraientzat.
- 10 Norberarekiko adeitasuna izan. Errua sentitzeak ez du laguntzen, seme-alabentzat onena nahi dugu.

Altxa Burua!  
gurasoen elkartetik moldatua



## TELMO LAZKANO

«Mugikorra ez da teknologia neutroa, menpekotasuna sortzen du; beraz, gazteak gaitu behar ditugu sakelakoekin harreman osasuntsua eraikitzeko»

Telmo Lazkano sare sozialetan eta pantailetan aditua da, baita dibulgatzailea eta irakaslea ere. *Nerabeen garrasia. Osasun mentala aldaketa garaian* (Alberdania, 2023) liburua idazlea da, Maitane Ormazabalekin batera, eta NoPhoneChallenge proiektua sortu du. Ekimen horri esker, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Euskadiko adikzioen arloko 2022-2024ko praktika onenaren saria jaso zuen 2023an.

### Zer ondorio negatibo eragin dezake mugikorrak umeengan?

Jokabide ez zibikoak (matxismoa, biolentzia, umiliazioa, gorputzen sexualizazioa...) goiz eta asko kontsumitzeak horiek hutsaltzera eramaten ditu eta, kasu batzuetan, errepikatzen. Gainera, mugikorraren gehiegizko erabilerak asperdurari aurre egiteko gaitasuna ez garatzea dakar, eta sormenari egiten dio kalte. Alegia, ez dio gure garunari uzten ideia berriak edo esfortzu zein denbora gehiago behar dituzten erronkak edo aukera konstruktiboak bilatzen. Bide beretik, informazioa une oro izateak gure gaitasun memoristiko eta kognitiboari eragiten dio; hau da, zerbait gogoratzeko lanketa egin beharrean mugikorrera jotzeko joera. Halaber, sare sozialen bitartez kontsumitzen diren edukiek –bideo laburrek adibidez–, gure garuna horrelako estimuletara entrenatzen dute, eta nerabe askok zailtasunak dituzte arreta handiagoa behar duten egoeretan.

### Eta errendimendu akademikoan?

Hizkuntzarako gaitasuna gainbeheran dago. Horren garapena hasiera batean bi iturburuen ondorio da: batetik, gurasoekin izandako hartu-emanen ondorioz ikasitakoa, eta umeak zenbat eta denbora gehiago igaro pantailaren aurrean (baita gurasoak ere), interakzio hori pobretu egiten da, eta, beraz, hizkuntzaren kalitatea ere bai. Beste iturburua irakurketa da. Kuantitatiboki ez da jaitsi, baina bai kualitatiboki, ez baita berdina Whatsappeko mezu bat irakurtzea edo liburu bat. Hizkuntzaren mozketak horri motibazio falta eta atentziorako gaitasun eza gehitzen badizkiogu, hortxe ditugu, gaur egungo maila akademikoan ematen ari atzerapausoen hiru pilare (ez bakarrak).

### Ba al dago erlaziorik mugikorraren eta gazteen osasun mentalaren artean?

Bai. Argazki eta bideoen bidez gure fisikoa eta bizitza ikusgai jartzen ditugu ehunka iritziren aurrean. Itxura fisikoari balio zentzugabe eta neurri-gabea ematen diogu eta; horrenbestez, sare sozialetan benetan bizi ez dugun irudi bat sortu eta erakusten dugu, eta horrek frustrazioa eragiten du. Hau da, nahi dugun onarpena lortzeko, izan beharko nukeenaren baina ez naizen horien arteko gatazka sor daiteke, eta horrek kontentagaitz utz dezake adingabea, baita gutxiagotasunez eta konplexuz bete ere. Gainera, haur eta nerabeen osasun mental sendoa lortzeko beharrezkoak diren jarduerak (kirola, artea, emozioen kudeaketa, giza harremanak...) murrizten ari dira mugikorrean ematen duten denbora dela eta.

### Haur batek nola erabil dezake ondo sakelakoa?

Ume batek ez luke mugikorrak izan behar. Auzia ez da ondo edo gaizki erabiltzea; horren ondorioz, erabiltzaileak du erantzukizun osoa, eta sakelakoen aplikazioen/enpresen benetako izaera (adiktiboa) hutsaltzen du. Ez gara ari teknologia neutro baten inguruan (esate baterako, bizikleta bat nola erabili irakasten); hortaz pertsona lagundu behar diegu gaitu daitezen mendekotasuna sor dezakeen sakelakoarekin harreman osasuntsua izateko. Gaituntza hori lortu ezean, ez gara erabiltzaileak izango, erabiliak baizik, eta ondorioak pairatuko ditugu.

### Beraz, zer da harreman osasuntsua izatea?

Gaituta bagaude, mugikorrak adimendunak eta sare sozialak oso tresna aberasgarriak izan daitezke; aitzitik, gaitu gabe erabiltzen baditugu, gure bizitza izorratu dezakete. Adina errespetatzeak eta pertsona hezitzeak berebiziko garrantzia izango dute telefonoarekin harreman osasuntsua

izateko; eta horrek guztioi eragiten digu: nerabe, guraso eta irakasleoi.


#### Debekatzearen aldekoa zara?

Ez, debekua ez da konponbidea, bai heziketa, baina adina errespetatuz, noski (16 urte). Teknologia geratzeko etorri da, eta ezin ditugu geure txikiak bizitza osoan babestu. Jakin behar dugu albo-ondorioak murrizteko zer tresna eta neurri ditugun eskura (erabilera-denbora mugatu, menpekotasuna kontrolatu, etab.). Hau da, heziketa teknologiko eta emozional integrala jasotzen badugu, tresna eta ohitura osasuntsuak erabili eta barneratzen baditugu, adina errespetatzen badugu eta komunitatean elkarrekin bagoaz eredu gisa jardunez, mugikorrarekin harreman osasuntsua izatea posible da, batik bat, aplikazio seguruagoz eta lege koherenteez laguntzen baditugu.

#### Helduok badugu zer hausnartu, ezta?

Mugikorrarekin harreman ez osasuntsuak (edo adikzioak) ez du zertan kausa izaera izan soilik (aplikazioen pertsuasio tekniken ondorioa bada). Beraz, ondorio izaera ere izan dezake. Helduok eredu izan al gara? Umeak behar duen atentzioa du, edo sarean dago horren eske? Txupete digitala dela diogu, baina benetan norentzako txupetea da? Bere emozioekin nola jokatu badaki edo mugikorra behar du emozio horiek anestesiatzeko? Txikitatik utzi diogu bakarrik egoten eta horretan ondo sentitzen, edo pantaila bat izan du uneoro eskura? Kasketa batean edo bazkaltzeko orduan, pantaila bat jarri diogu aurrean? Hori egiteak non uzten gaitu gu? Pantaila bat ari da gurasoen eginkizuna ordezkatzeko arlo batzuetan? Konfiantza du guri bere emozioak adierazteko, edo mugikorraren babesa du nahia-go? Uste dut guzti horretan badugula zer hausnartu, bai. ■

Osasunaren Mundu Erakundeak ohartarazi du eduki digitalaren kontsumoak zerotik bi urtera arte hutsekoa izan behar duela.



Argazkia-Bruce Mars, Unsplash



# Apirileko harria

MIREN AGUR MEABE  
Idazlea

**H**amar urte nituen lehen aldiz etxetik kanpo lo egin nuenean. Amabitxi hil berri, lagun baten amak atera ninduen doluminak ematera etorritako jendearen artetik. Bat-batean arrotza iruditzen zitzaidan gela hura eta atetik begira nengoen katabutaren lau erpinetan piztutako kandelatzarrei.

Auzoko batek hurbiltzeko keinua egin zidan:

–Etorri, txiki, ez ikaratu.

Amak eskutik heldu eta hilkutxaraino eramane ninduen, hamar pauso hamar zartada bezalakoak. Kristalaren azpian, amabitxiren aurpegia bare ageri zen. Egun batzuk lehenago, opari bat egin zidan berak. Eskolatik etxeratzen nintzenez, bere ondoan etzaten nintzen ohean, merienda jateko.

–Ez zaitez etzan, uniformeak zimurtuko duzu eta.

Bitxiontzia ateratzeko eskatu zidan. Gehien gustatzen zitzaidana, zintzilikarioak, brotxeak eta kristalezko arrosarioak baino gehiago, eraztun bat zen, ametista bat zeukana. Maitagarrien karamelua begitantzen zitzaidan.


–Zuretzat –esan zidan, atzamarrean sartuta.

Handiegi neukan.

Ordudanik, ametistaren kolorea nire umezaroaren tonua bihurtu zen.

Apirilaren hasiera zen eta euria ari zuen ataritik irten ginenean. Lagunak eskua ipini zidan sorbaldan bere etxerako bidean eta esan zidan belarrira:

–Ez egin negarrik. Primeran pasatuko dugu, ikusiko duzu.



Marga kanpoaldean bizi zen, baserri batean. Bazituzten abereak eta, atzeko partean, karel eta guztiko putzua.

–Ganbaran olgetan ibiltzeko baimena daukazue, afalordura arte.

Aurreko udazkenean heldu ziren herri-  
ra, eta uste lausoa geneukan motiboari buruz. Nire amak eta bereak elizako koruan ezagutu zuten elkar. Guztiz desberdinak ziren. Margaren amak ile luzea zeukan, hemen ezein andrek erabiltzen ez zuen estilokoa.

Katua mantso etorri zitzaigun atzetik.

–Kumeak egingo ditu laster. Horregatik dago hain potola. Ez ukitu, badaezpada.

Ganbara trastez beterik zegoen. Margak kutxa bat zabaldu, eta belo bat atera zuen bertatik, baita marfilezko kirtendun makila bat eta kapitain-kapela bat ere.

–Ez dira gureak, etxean gure aurretik bizi izandako jendearenak baino. Tira, arteztu bizkar hori, ezkondu egingo gara eta.

Ezkontza-himnoa kantatu genuen behagaina oin-puntekin igurtzi ahala, eta gero leihotxo baten aurrean paratu ginen belauniko, sagar zimelen artean. Gonaren poltsikotik atera nuen herentzian berriki jasotako eraztuna eta txandaka ipini genuen. Ondoren, musu bizkor bat eman genion ezpainetan bat besteari.

–Heriotzara arte.

Gauean, pega-pegata lo egin genuen. Izerditan beroaren berroz eta lotuta sentiarazten gintuzten planak asmatzen.

Biharamunean, Margaren amak karolinak erosi zizkigun gosaltzeko, eta arratsaldean, katuak kumeak egin zituen ikaztegian. Ama bila etorri zitza-

dan eta bat hartzen uzteko konbentzitu zuten.



Sarritan pentsatu dut Margari buruz.

Abisatu gabe alde egin zuten. Bere amak zerbaite esan zion neureari, amak azaldu ez zidana. Dena konpontzen zen zera esanda, «nagusien kontuak». Denboralditxo batez kontsolamendua topatu nuen Lila zainduta, nire katua. Ni amabitxi bakoa, ni lagun bakoa, ni eraztun bakoa... ezen eraztuna Margak eramane zuten. Hori dela eta, beti pentsatu izan dut ez zela gaizki moldatuko bizitzan.

Gauza franko egin dut nik bizitzan, hainbeste non ahaztu ere egin baitzaizkit. Ez naiz herritik mugitu, baina bertako zaharren egoitzan bizi naiz orain, ezin naizelako neure kabuz konpondu. Hormak zuriz margotuta daude eta altzariak metalezkoak dira. Hala ere, apirila ederra dator.

Lehenengo, doinu bat entzun dut eta zerbaitek nire burua garbitu du barrutik, arrastelua pasatu izan balidate bezala. Korridorera atera naiz ibiltzeko tramankuluarekin. Eta han zegoen bera, txandal urdina soinean eta ile luzea solte. Adinaren poderioz, denok hartzen dugu amaren antza.

–Ezin izan dut lehenago etorri. Benetako promesak ez dira sekula ahazten.

Kostatu zaio eraztuna atzamarretik ateratzea, artritaren erruz. Niri ere kostatu zait neurean sartzea, arrazoi beragatik. Ametista dizdizka ari da fluoreszentearen azpian, itzultzeko pozez balego bezala.

–Ez egin negarrik –esan dit Margak–. Primeran pasatuko dugu, ikusiko duzu. ■

# Ariketak123

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

## 1. Aukera ezazu *Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren* arabera hobetsitako esaldia (batzuetan bat baino gehiago dira egoki).

1. Proiektua garatzeko prozesuan, lehenik eta behin, behaketa parte-hartzailea eta \_\_\_\_\_ egin da.  
A. jarraitua                      B. jarraia                      C. jarraikia
2. Atzerrira lanera joan zenetik, asko nabaritu dugu haren \_\_\_\_\_  
A. hutsunea                      B. absentzia                      C. ausentzia
3. Inkestatutako pertsonen artean, \_\_\_\_\_ uste du osasun-sistema zaharkituta dagoela.  
A. minoriak                      B. gutxiengoak
4. Biziartero kartzela-zigorra ezarri zioten 10 urtetan \_\_\_\_\_ izateagatik.  
A. espia                      B. espioia
5. Adituek diote \_\_\_\_\_ bat bizitzea dela emozionalki sendatzea gehien kostatzen den esperientzietako bat.  
A. bonbaketa                      B. bonbardatze                      C. bonbardaketa
6. Mahai-inguruan parte hartzeko \_\_\_\_\_ egin genien hedabide guztiei, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso.  
A. konbite                      B. gonbita                      C. gonbite
7. Lanetik bota zuten hainbat langile nola tratatzen zituzten salatu zuelako, eta \_\_\_\_\_ osasun-arazoak ditu.  
A. harrezkero                      B. geroztik                      C. harez gero
8. \_\_\_\_\_ usainak onura handiak dakarzkigu; besteak beste, glukosa-mailak erregulatzea.  
A. Jasmin                      B. Jazmin
9. Maite du bere lana, nahiz eta ia egunero haurrek nahi gabe \_\_\_\_\_ egiten dioten.  
A. harramazka                      B. atzamar                      C. atzamarka                      D. atzaparka
10. \_\_\_\_\_ eman du gripeak jota.  
A. Aste bat                      B. Astebete                      C. Aste bete bat
11. Kontzejuek \_\_\_\_\_ prozesuari ekin diote; astean behin biltzen dira akordioak lortzeko.  
A. adiskidetzeko                      B. kontziliaziorako                      C. bakeak egiteko
12. \_\_\_\_\_ urriko lekuetan, ia ez dago garraio publikoko zerbitzurik.  
A. Populazio                      B. Biztanlego                      C. Biztanleria
13. Ikerketa batek frogatu du bruxismoa \_\_\_\_\_ dela garunarentzat, tentsio emozionala eta estresa askatzeko balio baitu.  
A. onuratsua                      B. onuragarria                      C. onurakorra
14. \_\_\_\_\_ berezia du, eta arazoak izaten ari da ikaskideekin.  
A. Nortasun                      B. Pertsonalitate                      C. Izaera

**2. Ale honetan agertu diren hitz hauetatik, zein idazten dira *h*-rekin eta zein *h*-rik gabe? Eta *h* daramatenak, non dute?**

Ustu _____	Geiago _____
Ausardia _____	Zear _____
Umorea _____	Oinarrizko _____
Urbildu _____	Ardatz _____
Unkitu _____	Aizpa _____
Arrasto _____	Ondoren _____
Oiartzun _____	Erronka _____
Erreminta _____	Ausnartu _____

**3. Osatu esaldi bakoitza dagokion hitzarekin. Hauek dira aukeran dituzunak:**

ballatu    nedatu    jorratu    sumatu    garatu  
trebatu    ziurtatu    balioztatu

1. Gaurko bileran, laguntzak kudeatzeko aplikazio informatikoa \_\_\_\_\_ eta ezartzeko gastuak onartuko dituzte.
2. Familiakoak zaintzeko, 152 gizonek \_\_\_\_\_ dituzte lan-eszedentziak (guztien % 25,2). Gizonen pisu erlatiboa handiagoa da Araban (% 33,7) eta txikiagoa Bizkaian (% 21,6).
3. Ikuskatze-bisitan zehar, ekintzak deskribatzeko akta egingo da; bertan jasoko da ekintza bakoitza zein baldintzatan garatzen den, zein irregularitasun \_\_\_\_\_ diren eta arduradunak zer adierazi duen.
4. Aholkatzen dute etxebizitza sozialaren eta eskuragarriaren inguruko jarduerak \_\_\_\_\_ daitezela biztanle-talde zabalagoetara (hala nola, klase ertain-baxuetara), egoera txarrean dauden gizarte-taldeetara mugatu beharrean.
5. Inkesta guztiak \_\_\_\_\_ ondoren, datu-base batean grabatuko dira estatistika-analisia egiteko. Gerora, planteatutako galderei emandako erantzun bakoitzaren ehunekoak kalkulatu dira.
6. Aurreratu baino lehen, gidariak \_\_\_\_\_ egin beharko du errei beretik aurrean doan ibilgailuaren gidariak ez duela adierazi aurreratzen hasteko asmorik.
7. Batzorde horiek kulturaren inguruko alderdi eta gai espezifikoak \_\_\_\_\_ ahal izango dituzte, Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onar ditzan.
8. Sarritan, enpresak langile kualifikatuak behar dituztenean, jada ezagutzen dituen ikasleak kontratatzen ditu, enpresan \_\_\_\_\_ direlako eta enpresaren lan-poltsan daudelako.



4. Beheko esaldi hauetako batzuk okerrak dira, beste batzuk zuzenak. Izan zuzen edo izan oker, berriatz itzazu beste modu batean:

### Zehar-galderak

▪ **-(e)n**

Zehar-galderak ezin dira deklinatu. Beraz, ez da egokia menderagailuari partitiboaren marka *(-rik)* gehitzea.

▪ **-(e)nentz**

Euskaltzaindiaren arabera, *-(e)n ala* ez formaren sinonimoa *-(e)netz* da (ez *-(e)nentz*).

1. \*Ezin jakin noiz iritsiko direnik.

---

2. \*Ez dakigu etorriko direnentz.

---

3. Galdetu lagunei gurekin etorriko diren ala ez.

---

4. Urruti nago, ez dakit ikusiko nauten.

---

5. Esan gaur zuzenduko dituzunetz.

---

6. \*Ez digute galdetu ikasle onak direnik.

---

1. 1. A/C      8. A  
2. A/B      9. A/C/D  
3. B      10. A/B  
4. B      11. A/C  
5. B/C      12. A/C  
6. B      13. A/B  
7. A/B      14. A/C

2. Hustu	Gehiago
Ausardia	Zehar
Umorea	Oinarrizko
Hurbildu	Ardatz
Hunkitu	Ahizpa
Arrasto	Ondoren
Oihartzun	Erronka
Erreminta	Hausnartu

3. 1. Gaurko bileran, laguntzak kudeatzeko aplikazio informatikoa **garatu** eta ezartzeko gastuak onartuko dituzte.
2. Familiakoak zaintzeko, 152 gizonek **baliatu** dituzte lan-eszedentziak (guztien %25,2). Gizonen pisu erlatiboa handiagoa da Araban (%33,7) eta txikiagoa Bizkaian (%21,6).
3. Ikuskatze-bisitan zehar, ekintzak deskribatzeko akta egingo da; bertan jasoko da ekintza bakoitza zein baldintzatan garatzen den, zein irregularitasun **sumatu** diren eta arduradunak zer adierazi duen.
4. Aholkatzen dute etxebizitza sozialaren eta eskuragarriaren inguruko jarduerak **hedatu** daitezela biztanle-talde zabalagoetara (hala nola, klase ertain-baxuetara), egoera txarrean dauden gizarte-taldeetara mugatu beharrean.
5. Inkesta guztiak **balioztatu** ondoren, datu-base batean grabatuko dira estatistika-analisia egiteko. Gerora, planteatutako galderei emandako erantzun bakoitzaren ehunekoak kalkulatu dira.
6. Aurreratu baino lehen, gidariak **ziurtatu** egin behar du errei beretik aurrean doan ibilgailuaren gidariak ez duela adierazi aurreratzen hasteko asmorik.
7. Batzorde horiek kulturaren inguruko alderdi eta gai espezifikoak **jorratu** ahal izango dituzte, Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onar ditzan.
8. Sarritan, enpresak langile kualifikatuak behar dituenean, jada ezagutzen dituen ikasleak kontratatzen ditu, enpresan **trebatu** direlako eta enpresaren lan-poltsan daudelako.
4. 1. Ezin jakin noiz iritsiko **diren**.
2. Ez dakigu etorriko **direnez**.
3. Galdetu lagunei gurekin etorriko **direnez**.
4. Urruti nago, ez dakit ikusiko **nauten ala ez**.
5. Esan gaur zuzenduko **dituzun**.
6. Ez digute galdetu ikasle onak **diren ala ez**.

# Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak identifikatzeko protokoloa aplikatzen ari dira EAEko ikastetxe guztietan

JAIONE LASA AGUIRRE

Go1-Go2 Eraginguneko HLBP aholkularia

**2** 023/2024 ikasturtean bigarren, adimen-gaitasun handiak (aurrerantzean AGH) dituzten ikasleak identifikatzeko protokoloa aplikatzen ari dira EAEko ikastetxe guztietan. AGH ikasleei zuzendutako hezkuntza arreta berariazko protokolo baten barruan dago, eta horrek AGH ikasleak EAEko ikasgela guztietan sistematikoki identifikatzen laguntzen du.

*EAEko Hezkuntza Sailaren Eskola Inklusiboa garatzeko Esparru Planak* ikasle guztien kompetentziak ahalik eta garapenik handiena bermatu behar duela jasotzen du. Hezkuntza-ikuskaritza, ISEI-IVEI, oinarrizko dokumentu bat diseinatzen hasi zen elkarteen laguntzarekin eta Deustuko Unibertsitate eta Berritzeguneeekin elkarlanean. Eta planean jasota dauden helburu, jarduera eta ebaluazio irizpideei jarraituz, *Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Plana* diseinatu zen gaitasun handiko ikasleak identifikatzeko eta ikasle horiekiko esku hartze-ko prozedura motak garatzeko.

Planaren oinarria eta inklusioaren printzipioa ardatz hartuta diseinatu zen protokoloa, eta honako hauek zehazten ditu: prebentzioa, detekzio goiztiarra, genero-agerikotasuna, esku hartzearen malgutzeta eta pertsonalizazioa, prestakuntza, ebaluazioa eta jarraipena. Halaber, protokoloaren 1. faserako (baheketa fasea) ezarritako tresna propioa eta prozeduren balidatzea Deustuko unibertsitatearen lankidetzarekin egin ziren.

20/21 ikasturtean, protokoloaren balidazioa jarri zen martxan pilotaje gisa ikastetxe batzuetan, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan. Pilotajea 22/23 ikasturtearen lehen hiruhilekoan bukatutzat eman zen, eta beharrezko doikuntzen ostean, 22/23 ikasturtearen bigarren hiruhilekoan Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietako 1. mailan inplementatu zen.

Ikasturte honetan, protokoloa Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapak dituzten ikastetxe publiko eta itundu guztietan aplikatuko da. Ikastetxeetan jarraitu beharreko prozeduraren barruan sartzen dira, batetik, ikastetxeetako irakasleak, irakasle aholkulariak zein orientatzaileak prestatzea, eta, bestetik, hiru fase-tan antolatutako protokoloa bera.

Lehen eremu horri dagokionez, Hezkuntza Sailaren Berritzegune Nagusiak, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, protokoloa ezartzen parte hartzen duten hezkuntza-eragile guztiei zuzendutako berariazko prestakuntza





antolatu eta gauzatu du, ikastetxeetako profesionalek protokoloaren fase bakoitza aplikatzeko beharrezko eza-gutzak izan ditzaten.

Prestakuntza saio horiek hiru modulu hauetan antolatzen dira:

1. AGH gaiaren kontzeptualizazioaren eta AGH ikasleen ezaugarrien inguruko prestakuntza, LH 1, LH 6 eta DBH 1 mailako tutore, aholkulari eta orientatzaileentzat.
2. AGH protokoloaren 2. fasean erabili beharreko tresnen inguruko prestakuntza espezifiko irakasle aholkulariei eta orientatzaileei zuzendua.
3. AGH dituzten ikasleekiko esku hartzearen inguruan, LH 2 eta DBH 1 mailako tutoreei, irakasle aholkulariei eta orientatzaileei begira.

Prozesuaren bigarren eremua dela eta, ikasturteko une ezberdinetan, ikastetxeek protokoloaren faseak aplikatu behar dituzte:

### 1. Baheketa/screening fasea

LH 6. mailako tutoreek 22/23 ikasturteko azken hiruhilekoan, eta LH 1. mailako tutoreek 23/24 ikasturtearen bigarren hiruhilekoan, ISEI-IVEIren AGH web-aplikazioan ikastaldeko ikasle guztien eskala nominala bete behar dute. Eskala horiek adimen-gaitasun handien ezaugarriak lotutako adierazleak jasoko dituzte: esparru kognitiboa; ikasteko estrategiak; sormena, irudimena eta motibazioa, eta interesari lotutakoak. Ondoren, web aplikazioaren iragazkiak

identifikatuko ditu adimen-gaitasun handiari lotutako ezaugarriak dituzten ikasleak.

### 2. Detekzio espezifiko

Baheketa fasea gainditu duten ikasleen familiek, hala badagokio, idatzizko baimena emango dute 2. eta 3. faseak aplikatzeko. Ondoren, detekzio galdetegia beteko dute; bertan, ikasleak familia-testuinguruan dituen ezaugarriak eta legezko tutoreen ikuspegia jasoko dira.

Baimena jaso ondoren, irakasle aholkulariek eta orientatzaileek protokoloan ezarritako *screening*-proba estandarizatuak pasako dizkiete ikasleei, adimen-gaitasunak, adimen-trebeziak eta sormen-gaitasunak neurtzeko. Jarraian, irakasle aholkulariek zein orientatzaileek, dagokion Inklusiorako Laguntza Zerbitzuko Hezkuntza Laguntzarako Berariazko Premien (aurrerantzean HLBP) aholkularitzarekin batera, jasotako familia-galdetegiak eta proben emaitzak aztertuko dituzte eta 3. fasera pasako diren ikasleak zehaztuko dituzte. Jarraian, hartutako erabakia familiei jakinaraziko diete.

### 3. Ebaluazio psikopedagogikoa

Berritzeguneetako HLBP aholkulariek, irakasle aholkulari zein orientatzaileekin lankidetzan, ikasleei beste proba psikometriko bat pasako diete, eta prozesu osoan zehar bildutako informazio eta emaitzeekin batera osatuko dute ebaluazio

psikopedagogikoa. Gero, familiekin batzartuko dira eta ikasleen ebaluazio psikopedagogikoaren emaitza orokorrak jakinaraziko dizkiete, baita proposatzen diren hezkuntza erantzunak ere.

Prozesuaren amaieran, ebaluazio psikopedagogikoan ikasle batek AGH dituela ondorioztatzen bada, ikaslea *HLBP Ikastetxeko zerrendan* erregistratuko da. Era berean, hezkuntza erantzunari dagokionez, ikasle horrentzat jarduera plan pertsonalizatua (aurrerantzean JPP) proposatuko da. Bertan, ikasgelako curriculum (arlotan edo ikasgai batean edo gehiagotan) aberastu eta behar bezala egokituko zaio. Tutoreek, irakasle aholkulari eta orientatzaileek, JPParen jarraipena eta ebaluazioa egingo dute ebaluazio guztietan, proposatutako neurriak ikaslearen bilakaeraren arabera doitzeko.

Horrek guztiak ikasteko hezkuntza-premia espezifikoak dituzten ikasleak garaiz detektatzeko aukera ematen dio ikastetxeari, eta ikasle bakoitzaren beharrei doitutako hezkuntza erantzuna diseinatzeko. Datuei erreparatuta, 22/23 ikasturtean LHko 1. mailan, ia ikastetxe guztiek (%99,5) parte hartu zuten protokoloaren ezarpenean, eta, prozesu guztia amaitu ondoren, adimen-gaitasun handien prebalentzia %3,1koa dela adierazi dute ISEI-IVEIk jasotako datuek. Beraz, protokoloari esker antzemandako 6-7 urte bitarteko 571 ikasleen beharrei erantzuteko, dagokien ikastetxeetan JPPak diseinatu dira ikasturte honetan. ■

# ESTATUKO ANIMALIEN ONGIZATERAKO LEGEA: bizi-baldintzak bermatzea helburu, ala esplotazioa legalki onartzeko erreminta?

JON GONZÁLEZ DE REPARAZ  
Kazetaria

**A**raudia jaio da izaki bizidunak babesteko gizartean dagoen sentimendu sozialari erantzuna emateko.

Animalia guztiek bizi-baldintza duinak izan behar dituztela sinetsirik, ongizatea, eskubideak eta garapena bermatzeko sortu da. Legeak animaliek jasaten dituzten tratu txarrekin, hilketekin eta abandonuarekin amaitu nahi du, besteak beste, eta jabeen betebeharrekin zorrotzagoa da. Hala ere, testuak askotariko erantzunak izan ditu: batzuek aurrerakoia dela diote; beste batzuek, aldiz, motz geratu dela abiapuntua erabat okerra duelako.

2023ko irailaren 29an, Animalien Eskubideak eta Ongizatea Babesteko Legea sartu zen indarrean Espainiar estatuan. Lege horrek animaliek bizi baldintza duinak izan behar dituztela zehazten du, beren ongizatea, eskubideak eta garapena bermatzeko. Xede horrekin, eta erregelamendu bereziaz baliatuta, espezie bakoitzerako baldintzak aletuko dituzte.

Orokorrean, testuak animalien abandonuari eta hilketei amaiera eman nahi die, baita haienganako tratu txarrei ere. Beraz, zorrotzagoa da maskotak dituzten pertsonekin, eta etxean ditugun animalien eta pertsonen zaintzapean dauden abere guztiengan eragiten du. Hori horrela izanik ere, honako hauek geratu dira legetik at: zakur gidariak; armadako animaliak; poliziako, ehi-zarako, artzaintzarako, lanerako eta laguntzarako txakurrak; falkoneria eta lege berezia duten beste arlo batzuk (zezenak eta animaliekin esperimentazioa).

Zehazki, artikuluek xedatzen dute beldurra, antsietatea edo sufrimendua eragiten dituzten metodoak ezin direla erabili animaliak hezteko, eta irmoki galarazita daudela lepoko elektrikoak edo bulkadak eta itolarria sortzen dituztenak. Horien ordez, jabeek bizikidetzara-azaroak dituzten animaliak espezialistarengana eraman behar dituzte. Legeak zaintza arduratsua eta adopzioa bultzatu nahi ditu, eta animalien arteko borroka zigortzen du. Gainera, animaliak ikuskizun publikoetan, jarduera artistiko zein turistikoetan, zirkuetan edota azoketan (zezenketetan salbu) erabiltzea debekatuta dago. Horrez gain, maskotak hiru egun baino gehiago bakarrik uztea galarazten du (24 ordu txakurren kasuan), eta mutilazioa eta animaliak hiltzea ere bai (salbuespenak salbuespen). Halaber, ezin dira espazio publikoan lotuta utzi arduranaren gainbegiradarik gabe, ezta ibilgailuaren barruan, edo modu ohikoan trasteleku, balkoi, terraza

edo antzeko tokietan ere. Egia da araudi honi esker konpainia-animaliak saltokietara eta garraio publikora sartu ahal direla. Hori errazte aldera, itsasontzi-, hegazkin- eta tren-enpresek neurriak hartu behar dituzte, eta jabeek segurtasun neurriak errespetatu eta animalia-aren portaera egokia bermatu. Orobat, legeak aurreikusten du zooak eta antzeko lekuak espezie autoktonoak sendatzeko gune bihurtzea pixkanaka.

Bestalde, merkaturatzeko asmoarekin edozein espezie-tako animaliak hazi nahi dituztenek Konpainiako Animalia Hazleen Erregistroan izena eman beharko dute, bestela izena eman duen pertsona bati erosi beharko diote. Animaliak ezin dira dendetan saldu, ez-eta horietako erakusle-ihonetan erakutsi ere komertzializatzeko; erregistro horretan izena emanda dutenek soilik saldu ahal izango dituzte txakurrak, katuak edo hudoak. Dena den, animalia-dendek urtebeteko epea dute araura egokitzeko.

Modu berean, lege honek zenbait betebeharrak ezartzen dizkie jabeek. Adibidez, abereak higie- eta osasun-egoera egokian edukitzea, beharrezkoa denean albaitariarengana eramatea, elikadura egokia eta orekatua eskaintzea, txertoak jartzea eta diskriminaziorik gabe ugaltzea ekiditea. Mikrotxipa jarri behar diete txakurrei, katuei eta hudoari, eta horiek galdu edo lapurtuz gero, 48 orduko epean jakinarazi beharko diete agintariei. Halaber, pertsonak ibiltzen diren esparru edo kaleetan (adibidez, establezimenduen sarreretan edo atean, fatxadetan...) animaliek kaka eta txiza egitea saihestera premiatzen du legeak, eta hondakin horiek kentzera edota produktu biodegradagarriekin garbitzera ere bai.

Horrez gain, txakurra eduki nahi duenak derrigorrezko doako ikastaroa egin beharko du horren ardura hartzeko gai dela egiaztatzeko; txakurren jabeek erantzukizun zibileko nahitaezko aseguru kontratatu beharko dute (hori Euskal Autonomia Erkidegoan ez da berria, aurretik derrigorrezkoa baitzen), eta konpainiarako onartuta dau-

## Desinformazioz blai

Informazio nahasgarria aise hedatu da sare sozialetan. Zakuan zer den ikusteko, ahurtara bat aski:

- Ez, Espainiako Gobernuak legezkoak diren zenbait konpainia-animalia ez ditu galaraziko (katu, txakur, sagu, untxi, hamster, dortoka, armiarma, suge, iguana, akuri, papagai, papagaitxo, kameleoi...); beraz, herritarrek etxean dituzten maskota horiek ez dizkiete agintariei entregatu beharko. Horietariko asko ez dira arauan agertu ere egiten, eta beste batzuk jadanik debekatuta zeuden (arriskutsuak direnak, esate baterako).
- Ez, arau berriak ez du bost animalia mugatzen etxean izan daitezkeen maskotak; berez, ez du mugarik jasotzen. Hain zuzen ere, autonomia erkidegoek eta udalek kopuru hori xehatzen dute beren araudietan.
- Ez, edozein konpainia-animalia duenak ez du derrigorrezko ikastaroa egin behar, txakurren jabeek zuzenduta dago bakarrik.
- Ez, animalien eutanasia ez dago debekatuta. Onartuta dago sendatzeko aukerarik ez dutenean eta beren kalitate maila oso mugatuta dagoenean, baina betiere albaitariak justifikatzen badu. Legeak debekatzen du osasun oneko animaliak hiltzea, ez badute segurtasun arazorik sortzen ez eta osasun publikoarentzat arriskurik ere, edo animaliak babesteko zentroetan plazarik ez dagoenean.
- Ez, jabetza pribatuetan finkatzen diren kaleko katuen taldeak ez dira auzokideen ardura, udalarena izaten jarraituko dute.



den animalien zerrenda sortuko dute. Dena den, hiru neurri horiek ez daude oraindik indarrean estatuko legean; aurrerago aplikatuko dira berariazko erregelamenduen bidez.

Arau-hauste motaren arabera, ordaindu beharreko kopurua ezberdina izango da. Betebeharrak eta debekuak ez errespetatzea arau-hauste arinak dira, eta 500 eta 10.000 euro tarteko isunak izango dituzte. Honako hauek arau-hauste larria izatera dute: animalia kaltea edo sufrimendua eragitea, ez identifikatzea, haiengan metodo oldarkorrek eta bortitzak erabiltzea, animalia basati aloktonoak (beste he-

rrialde batzuetakoak) haztea eta horiek merkaturatzea, abandonua, eta, azkenik, lapurtzea edo modu desegoki baten bidez eskuratzea. Horiek guztiek 10.001 eta 50.000 euro bitarteko isuna izango dute. Arau-urratze oso larriak dira abereak hiltzea baimenik gabe, borrokarako trebatzea, animaliak haztea eta erakustea merkaturatzeko, eta ikuskizunetan, ferietan eta espektakuluetan erabiltzea. Mota horietako jarduketan, isuna 50.001 eta 200.000 euro tartekoa izan daiteke. Are gehiago: animaliei tratatu txarrak emateak urtebete baino gehiagoko kartzela-zigorra dakar (36 hilabete, animalia hiltzen bada).



# Euskadi eta animaliak datuetan



## EZTABAIDA

Arriskutsuak izan daitezkeen  
**11.770** maskota (% 3,3)

- 267.015** konpainia-animalia (% 74,3)
- 64.240** ehizarako (% 17,9)
- 18.481** zaintzarako edota defentsarako (% 5,1)
- 8.937** artzain-txakur (% 2,5)

Lur, Luna, Argi, Kira, Lagun, Sua, Thor, Txiki, Naia eta Zuri, ohiko izenak.

Datacityk 2022an egindako inkesta.



## MAIALEN SAGÜÉS

NOR Euskal Herria Antiespezista eragileko bozeramailea

«Ez dugu babestuko animaliak esplotatzea helburu duen legerik»

Zer balorazio egiten duzue lege honen inguruan?

Lehenik eta behin, baloratu behar duguna da animalien ongizaterako legeek zer-

tarako balio duten. Horrelako araudiek funtzio bakarra dute: abereak zapaltzeko ditugun erak erregulatzea eta haiek esplotatzeko zenbait praktika legalki onartzea. Hori guretzat, antiespezistak garen heinean, ez da onargarria. Ez dugu inoiz babestuko animaliak esplotatzeko egin dagoen aparatu legalik. Hori esanda, Espainiako Estatuan onartu den azken legeak arazoa areagotu besterik ez du egiten. Konpainiarako erabiltzen diren animaliak bakarrik hartzen ditu kontuan (gainontzekoak beste lege batzuetan erregulatzen dituzte), eta oraingoan arrakala hori handitu dute, txakurren kasuan bereziki. Ez dituzte zakurrak oro har babesten, bereizi egin dituzte gizakientzat betetzen duten eginkizunaren arabera. Alegia, legeak konpainiaren funtzioa egotzi dietenak barnebiltzen ditu, baina, esaterako, artzaintzarako, ehizarako edo polizia-lanerako txakurrak ez ditu babestuko.

Zein dira legea hobetzeko zuen proposamenak?

Abereak babestuko dituen benetako legerik ez da egongo, ez behintzat sistema honek animaliak gizakien etekin

ekonomikorako erabiltzen dituen bitartean. Ez dago haien interesak eta askatasun grina kontuan hartzeko modurik marko horren barruan.

Lege hau nahikoa da, ala motz geratu da?

Motz geratuko da, baina ez zigor edo ondorio nahikorik ez dakarrelako, baidetik eta oinarrizko perspektiba okerra delako. Animalien alde egiteko prozesu zabalagoak jarri beharko lirateke martxan, eta haien salmenta-erosketak ez lirateke posible izan beharko. Gainera, animaliak erreproduzitzera behartzen dira, horrekin negozioa egiten da, eta objektu gisa tratatzea ez da zilegi. Errotik aldatu beharreko harremana da hori, eta kontsumorako objektu diren bitartean, ezinezkoa izango da egiturazko harremana aldatzea. Horrez gain, gaur egun animaliak egoera zaurgarrian daudenean zaintza bermatzeko erremintak garatu beharko lirateke, baita abandonatuak izan direnean eta erabili ondoren «produktiboak» ez direnean ere. Haien ongizateaz hitz egin ahal izateko, haien zaintzaz eta askatasunaz hitz egin beharra dago.

### Zer eragin izan dezake legeak animalien?

Orokorrean, lege honek egoera okertu du. Autonomia erkidegoetan muga minimoak jartzeko saiakera izan da, baina, kasu gehienetan, lege autonomikoek printzipioz babes handiagoa ematen zieten zenbait animalari. Orain bateraezintasunak suertatuko dira, eta estatu mailakoak kaltetu egingo ditu animaliak. Nola eragingo duen horrek? Animalien aldeko eragile askoren kezka

da ez ote dituen malgutuko animalien kalterako egun indarrean dauden beste araudi batzuk.

### Legetik kanpo geratu dira hainbat sektore. Zer deritzozue?

Espezie eta funtzioaren arabera zatiketa animalien kontrako jazarpen erreminta da, eta horri espezismoa deitzen diogu. Animaliak beren izate soilagatik errespetatu orde, zereginak egotzen dizkiegu gizakien zerbitzura. Horretarako

balio dute konpainiarako, produkzioko edota tauromakiarako animalia bezalako etiketek eta horiek dakartzaten legearen zatiketek. Gizakiok ez dugu baloratzen zein diren subjektu horiek dituzten beharrak, zertarako balio duten gailentzen da. Ongizatea nahi badugu, animalia guztientzat aztertu behar ditugu interesak: aske izatea, erasorik ez jasatea eta haien bizilekuak errespetatzea. Horrelako legerik egitea posible da? Sistema kapitalista honen baitan, guk ez dugu uste. ●



### MARISOL CUENCA

Arabako Albaitarien Elkarteko lehendakariordea

«Lege honek marko komun bat jartzen dio lurralde osoari»

### Legearen zein alderdi iruditzen zaizkizue onuragarriak?

Ados gaude animalien identifikazioa eta trazabilitatea jatorritik sustatzearekin, bide onena da eta erantzukizunak argitzeko eta gaixotasun genetikoak eta hereditarioak kontrolatzeko (zenbait izaera barne, adibidez, beldur handia duten animaliak eta horren eraginez

oldarkorrek direnak). Jabeen hezkuntza kontuan izateari ondo deritzogu, animalia behin etxean, familiak egin dezakeen gauza bakarra baita ondo haztea desiratzen ez diren jardunbideak saihesteko (animaliak abandonatzeko arrazoi nagusi bat portaeren alterazioa da). Halaber, konpainiarako proposak diren animalia-espezieak zehaztearen alde gaude, ohikoa baita guretzat klinikan ikustea oso bizi-kalitate txarra duten animaliak, espezie horrek behar duen espazioa, tenperatura, hezetasuna, elikadura edota harreman sozialak ez dituelako. Oro har, lege honen alde gaude lurralde osoari marko komun bat jartzen diolako. Orain arte, desberdintasun handiak zeuden erkidegoen artean.

### Ba al dago puntu ilunik?

Bai. Hainbat sektoretara dedikatzen diren animaliak arautik kanpo uztearekin ez dugu bat egiten. Legean jasota egon litezke, eta ekintza horiek gauzatzean, baldintza bereziak ezarri (horrela egiten du, behintzat, animaliak babesteko euskal legeak). Sektore horiek baztertu ez balituzte, ez zuketena legea aurrera aterako interes asko daudelako. Dena den, ez dago horiek kanpoan uzteko inolako funts zientifikorik.

### Nola hobetu liteke legea?

Funtsean, araua betetzeko azpiegiturarik ez badago, ez dadila legerik ezarri; horrek nahasmen handia sortzen du betetzearen inguruan. Errealitateak dio indarrean dagoela eta bete behar dela, baina ea nola erregistratzen den kumaldi bat atera nahi duen pertsona bat, ea klinika batean nola dakigun galgo bat konpainiarako edo ehizarako den, edo ea nork kontrolatuko duen pertsona batek etxean dituen katuak esterilituta dauden ala ez...

### Nahikoa da lege hau ala motz geratu da?

Legea ez da motz geratzen, salbuespen batekin: kanpoan uzten ditu aipatutako animaliak. Baina ikuskapenik egiten ez bada, orduan oso motz geratuko da. Legea bete nahi duenarentzat, antzeko legerik ez duen erkidego batean bizi bada, bat-batean oso zorrotza da, baina zenbait aspektutan arau murriztaileago bat dugunontzat, Euskadin esaterako, aldaketa gutxi dakartza. Euskadiko legea antzekoa da.

### Nola aplikatuko da legea?

Hori da sortzen zaigun zalantza. Euskadin urteak dira txakurrek mikrotxipa derrigorrez eraman behar dutela,



baina oraindik portzentaje handi batek ez darama; eta kontuan izanda 2022ko abuztutik katuek identifikatuta egon behar dutela, baina soilik ehuneko txiki bat dagoela erregistratuta... Hain oinarrizkoa den zerbait ondo ezartzen ez

bada, ea nola egiten duten gainontze-koa aplikatzeko.

### Zer eragin izan dezake lege honek animalien gainean?

Bizi-kalitate hobea duten animaliak izatea espero dute (arazo hereditario gutxiagoekin, beharrak hobeto aseta, familiek lagunduagoak, identifikatuta...).



## KEPA TAMAMES

Animaliei Tratu Etikoa Ematearen Aldeko Elkartearen (ATEA) bozeramailea

«Lege hau ez da nahikoa, baina, oinak lurlean, aurrerapauso garrantzitsua da»

### Legearen zein alderdi iruditzen zaizkizue onuragarriak?

Zenbait arlo aurrerakoi egon badaude. Ontzat hartzen dugu txakurrak gurekin bizitzeko osasun-azterketa bat egin behar izatea, denden ateetan uztea debekatuta egotea edo zirku ikuskizunetatik animaliak desagertzea. Baita katuei mikrotxipa jarri behar izatea ere, edota azken horiek eta txakurrak etxean

bakarrik geratzeko gehieneko denbora ezartzea, besteak beste.

### Eta zeinekin ez zaudete ados?

Penagarria da animalia batzuk, ehizarako txakurrak kasu, legetik at geratu izana. Guk debekatuko genituzke animaliak erabiltzen dituzten ikuskizun guztiak, zezenketak barne. Espero dugu orain testuan agertzen ez diren egoerak etorkizun hurbilean barneratzea.

### Nahikoa da lege hau, ala motz geratu da?

Nahikoa izatetik oso urrun geratzen da, guk animalia sentikor guztiak kontuan hartzen baititugu ikuspuntu etiko batekin. Baina, oinak lurlean, aurrerapauso garrantzitsua da.

### Zer da animaliak kontuan izatea ikuspuntu etiko batetik?

Animalia guztiak sufritzeko gai dira. Hortik abiatuta, defendatzen dugu maila bereko sufrimendua berdintsua dela biktima guztientzat. Horrenbestez, logika horren arabera, ezin dugu banatu, batetik, animalien berezko sufrikarioa, eta, bestetik, gizakiona. Orokorrean, oinazea ez da desiragarria, eta horregatik jarrera berdintsua erakutsi beharko genuke funsgabeko sufrimendu guztien aurka.

### Nola aplikatuko da legea?

Guztiz aplikatzea ez da erraza izango administrazio eskudunek behar diren tresna juridikoak ezartzen ez dituztelako. Gainera, arazo larriak azaldu dira

indarrean dagoenetik, eta interes kontrajarriak agertu dira. Legegileek esfortzu handia egin behar izango dute arlo batzuk egi bihurtzeko; beste batzuek, aldiz, aplikazio erraza izango dute.

### Zer eragin izango du lege honek euskal gizartearen?

Animaliak babesteko euskal legea ez da txarra, ez behintzat Estatukoa baino okerragoa. Arazo larriak azaldu dira indarrean dagoenetik interes kontrajarriak adierazi dituztelako; adibidez, Eusko Jaurlaritzak Estatuko legerari jandak errekurtsoa jarri dio eskumenak inbaditzeagatik.

### Zer alde dago Estatuko eta Euska-diko araudien artean?

Adibide gisa, euskal legeak ehiza txakurrak eta laguntzakoak testuan jasotzen ditu, Estatukoak, ostera, kanpoan utzi ditu aurkako lobbyek izugarritzeko presioa egin baitute.

### Eta zer deritzozue at geratu diren hainbat sektoreri buruz?

Ehiza kalte egin ez diguten animaliak hiltzean datza, eta horretarako erabiltzen diren txakur gehien-gehienek tratu txarrak jasotzen dituzte. Tauromakia inolako erasorik egin ez diguten zezenei zauri hilgarriak eragitean oinarritzen da, kultura, arte edota tradizioaren izenean. ATEAK ez du sekula erlazio hori ukatu, are gehiago, onar dezakegu, baina gure iritziz garrantzitsuen da inori min egitea ekiditea. ■



# ARKATZETIK ITZULPEN NEURONAL ETA ADIMEN ARTIFIZIALERA

Norantz doa euskal administrazioetako itzulpengintza?

EDORTA ESPAÑA OCIO

Uribe Kosta Mankomunitateko itzultzailea eta IZOko diasporakoa

**G**ogoan dut itzultzen hasi nintzen garaia. Joan den mendeko azken hamarkadaren hasieran izan zen hori, oposizioak prestatzen hasi nintzenean. Nire lankide bakarrak boligrafoa, papera eta hiztegia ziren, bai eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria ere, handik hartzen baintuen ariketak egiteko testuak. Harrez gero, gauzak asko aldatu dira. Ikus dezagun.

## Arkatza eta borragoma

Handik pare bat urtera, administrazioan itzultzaile nabilela, antzeko egoera kontatu zidan gure Kaxildo zenak: IZO edo horren hasikina abiatu zenean, arkatzez egiten zituzten itzulpenak, eta, gero, administrari batek makinaz idazten zituen testu guztiak. Aurrerago, ordenagailu-terminalak sartzen hasi ziren —oso funtzio mugatuak zituzten—, eta, hala, itzultzaile bakoitzak bere testuak idazten zituen, ordenagailuan bertan, zuzenean. Agur, arkatza.

## Informatika geureganatzen

Geroago, Windows ingurunekeo testu-tratamenduko programak erabiltzen hasi ginen. Alde ederra, gero! Errazerraz kontsultatzen genituen lehenetik egindako lanak, eta programak intuitiboagoak ziren. Aldi haietan, hala ere, hiztegiez gain, ezer gutxi zegoen, non eta ez zen norberaren eta lankideen esperientzia. Artean, hardwarea garatzen hasita zegoen, baina itzultzaileontzat handik eta urte batzuetara ezinbestekoa izango ziren tresnak (lagundutako itzulpena, itzulpen automatikoa...) usaindu ere ez.

## Ordenagailuz lagunduriko itzulpena (OLI)

1998an, Expolingua' 98 biltzarraren bidez jakin genuen bazegoela programa bat itzultzen laguntzen zuena. Izugarritzko aurkikuntza izan zen guretzat, eta, hain zuzen ere, hurrengo urtean edo, TRADOS programa instalatu zuten IZOko ordenagailuetan. Jauzi kualitatibo ikaragarria izan zen. Testu errepikakorrak edo antzeko testuak itzultzeko laguntza paregabea.

## Eta European, zer?

2000ko urtarrilean, IZOko lankide bi Europako Batasuneko Itzultzaile Zerbitzu Zentralera joan ziren lan-bisitan, hango itzulpen-sistemen eta antolamenduen berri hartzera.

Programa integratua zen Europako Itzulpen Zerbitzuan erabiltzen zutena. Euskarri bakarrean biltzen zituzten itzulpen-baliabide guztiak: OLI, itzulpen automatikoa eta banku terminologiko erraldoia. Dena tresna bakar batean. Oker ez banago, handik urte batzuetara, Eusko Jaurlaritzako egungo IZO zerbitzua hango hura oinarri hartuta egituratu zen (hango Itzulpen Zerbitzuarekin jardunaldi ugari egin ostean).

## Itzultzaile neuronal

2020an, inork hain goiz espero ez zuen berria jaso genuen: Jaurlaritzak itzultzaile neuronal deituriko itzulpen-sistema automatikoa garatuta zeukan (Euskal Herriko eremu pribatutik ere beste plataforma batzuk sortu ziren: ELIA, BATUA), eta edozeinek erabiltzeko moduan jarri zuten sarean. Kuriositatez sartu nintzen aplikazioan, inolako esperantzarik gabe, ez bainuen uste plataforma horrek testuak ganoraz itzuliko zituenik. Eta hara non us tekabea. Testu-kalitatea ez zen txarra! Zuzenketaren bat edo beste egin behar zitzaion, bai, baina izugarritzko laguntza zen. Euskararen ganorazko itzulpen automatikoa —itzultzaile neuronalaren bidez— gure tartean zen; gainera, edozeinen esku, erabilgarri.

Berehala zabaldu zen itzultzaile neuronalaren berria, eta, itzulpen munduko profesionalen gain, edozein pertsona ere hasi zen erabiltzen. Ordura arte, tratamendu profesionalaren bidez egiten zena (itzultzaileak), orain edozeinek egin zezakeen bere kontura. Baina, tratamendu farmakologikoen antzera, hemen ere kontraindikazioak daude: kontrolpean erabiltzen ez bada, arazoak. Eta hemengo arazoa zen itzultzaile neuronalak tarteka interpretazio-akatsak egiten dituela, eta, horiek zuzentzen ez badira, horrela argitaratuko dela, akatsak eta guzti.

Adibide bat emango dizuet, benetako adibidea. Lizitazio baten baldintzarrietan, esaldi hau agertu zen: (sic) «La limpieza de lunes a sábado será con la plantilla al completo». Eta itzultzaile neuronalak honela eman zuen: «Astelehenetik larunbatera langile guztiak garbituko dira». Tori, Toribio!!! Imajina ezazue esaldi hori ez dugula zuzendu, eta horrela argitaratzen dela. A zer lotsa! Neuronalak inolako kontrolik edo gainbegiradarik gabe erabiltzen bada, hori bera gerta daiteke.

Itzultzaile neuronalak itzelezko laguntza da administrazioko itzultzaileentzat, baina baita administrazioan euskaraz idazten duen edozeinentzat ere. Doako tresna da, erraz-erraz eskuratzekoa. Sistema neuronalok zenbat eta gehiago erabili, hainbat eta gehiago ikasten dute, eta pentsatzekoa da datozen urteetan aurrerapauso ikaragarriak ikusiko ditugula.

### Adimen artifiziala

Eta aurrerapausoek ari garenez, nola ba aipatu gabe utzi adimen artifiziala. Orain arte egin ditudan proba gutxi horietan sumatzen da adimen horrek oraindik ere baduela zer ikasi. Baina ez daukat zalantzarik: denborarekin (eta hori ez da oso epe luzea izango), adimen artifizialak eskainiko duen itzulpen-kalitatea askoz ere hobea izango da. Eta, orduan, non geratuko da euskal itzultzaileon lana?

### Zein «-tzaile»?

Esango dudana ez dakit orokortzeko modukoa den, baina susmoa dut itzultzaile neuronalak hedatu denetik itzulpen-eskaerak gutxitu egin direla. Geurean behintzat horixe gertatu da. Neuronalak zenbat eta gehiago erabili, hainbat eta itzulpen gutxiago eskatzen dira. Eta orduan galdera hauek datozkit burura: zeinek gainbegiratzen ditu testu horiek? Zuzendu gabe ateratzen dira kalera? Zein hizkuntza-gaitasunekin balioztatzen dira itzultzaile neuronalak egindako itzulpenak?

Geurean bederen, epe labur batean antzeman dugu itzulpen-eskaera beherrantz joan dela, eta ez dut pentsatu nahi zer gertatuko den hemendik eta urte batzuetara. Joera hori bada, aurreikusitako beharko dugu zer egin, eta hona dator nire proposamena: itzultzaileon lan-jardunaren zati bat trebatzaile-lanetan ematea (*Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, 59. zk, 2008ko urtarrila: «Harriak gure teilatuaren kontra»).

Neure irudiko, aurrerapen teknologikoen ematen diguten aukeraz baliatuta, administrazioek ahalegina egin beharko lukete euren langileak administrazio-hizkeran trebatuago egon daitezkeen. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, ofizialki, 1994an abiatu zen administrazio-hizkera argiaren aldeko mugimendua, eta hori abiapuntutzat hartuta, ia 30 urte daramatza IVApek ahalegin horretan («hizkera argiaren bidetik», «ARGIRO», administrazio-hizkerako ehundaka ikastaro...). Ikastaro asko izan arren, susmoa dut, hala ere, langile gutxiengana heldu dela aipatutako mugimendua; ez eskaintza txarra delako, baizik eta filosofia hori (administrazio-hizkera demokratizatzearena) behar den beste zabaldu ez delako.

### Hizkuntza-eskakizunetatik ekintzara

Hizkuntza-eskakizunak funtsezko tresna izan dira euskal administrazio publikora sartzen direnek eduki beharreko hizkuntza-maila balioesteko, baina,

behin lortuta, sarri, hor amaitu da administrazio askoren ahalegina. Nire ustez, sarrera-baldintzaz gain, ez du beste ondorio praktikorik eduki. Hizkuntza-eskakizunek dagokion hizkuntza-maila ziurtatzen dute, baina ez erabilera. Eta bada garaia lortutako maila hori zozertan erabiltzeko.

Euskara zerbitzu-hizkuntza izan baino lehenago, lan-hizkuntza gisa landu beharko genuke, eta, horretarako, prestakuntza egokia eman behar zaie langileei, plangintza baten barruan. Erabilerrara bideratutako prestakuntza.

Gure erakundeetan programa informatikoren bat ezartzen denean, prestakuntza-ikastaroak eskaintzen zaizkie langileei, eta ikastaro horiek nahitaezkoak izaten dira lanean jarduteko. Inork ez du zalantzan jartzen horrela izatea. Eta hizkuntza bat lan-hizkuntza bihurtzeko ikastaroak ere nahitaezkoak izango balira?

Administrazio-atal elebidunak sortzeko, prestakuntza egokia eskaini behar da; ez da nahikoa hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen duen mailarekin. Orain arte, horrelako ikastaro ugari eskaini dira, baina bakar-bakarrik hala nahi izan dutenentzat. Eta ikastaro horiek, nahitaezkoak balira administrazio-atal elebidunetako langileentzat? Izan ere, baldin eta egia bada itzultzaile neuronalaren eraginez itzulpen gutxiago eskatzen direla, gutxienez nolabaiteko prestakuntza ziurtatu behar zaie neuronalak emandako ordainak balioesten dituztenei, haiek ere euskarazko testu egokiak sortu eta idatzi ahal izateko.

Argi dago irakasle asko beharko liratekeela planteamendu horretan, baina hor daukagu etorkizun batean lan egiteko modua aldatu beharko duten itzultzaileen saldoa. Esperientziatik abiatuta, lan ona egin lezakete tokian tokiko langileak prestatzen. Planteamendua biribiltzeagatik, itzultzaile/irakasle/trebatzaileak trebatu beharko lirateke lehenago, noski, EAE osoan antzeko jokabidea izan dadin. Horra nire proposamena. ■

# Txatalak

IÑAKI IRASIZABAL

Idazlea

**Z**aharra ez zen arren, hilzorian zeukan aita. Korridore aseptiko hartan eserita, gaizki sentitzen hasi zen Helene. Urdaila ahora zertorkion, ezinegonak arnasa lasai hartzea galarazten zion. Ama aspaldi auto istripu batean hilda, umezurtz geratzeko zorian zegoen.

Jane Fondaren esaldi bat gogoratu zuen: «Gurasoak dira heriotzatik bereizten gaituztenak; joaten direnean ez dago heriotza eta gure artean inolako mugarik.

Aita gehiago ikusiko ez zuela jakiteak mina zekarkion, baina ez zen hori bakarrik. Esan ziezaiola norbaitek nola jokatzaren zuten besteek horrelako egoeretan. Zer zegoen ondo eta zer ez.

Burura zetozkion laino beltzak uxtzeko ahaleginean zebilela, haurtzaroko istorioa gogoratu zuen.

Zortziren bat urte izango zituen, eta gurasoekin zihoan Citroen handi baten atzeko eserlekuan.

Berak ikusi zuen bide bazterrean etzanda, mihia kanpoan. Uda betean zeuden. Aitari oihuka hasiz, honek autoa gelditza lortu zuen.

Txakur gaztea omen zen, ia kumea oraindik. Etxekotzat hartu zuten. Lehenengo egunean jaten eman, garbitu eta parkera atera nahi izan zuten. Aitak, auskalo nondik zuzendutako uhala ipini zion lepo inguruan. Txakurrak ez zion inolako eragozpenik jarri. Uhalei



ohituta zegoela zirudien.

Inor baino lehenago sartu zen igogailuan eta, behin bertan, atzeko hanken gainean eseri zen.

Kalean ugazaba berrien aurretik zihuan, uhaletik zertxobait tiraka, eta noizean behin atzerantz badaezpadako begiradak zuzentzen zituen. Espaloitik joan ziren lasai asko hirurak: txakurra, aita eta Helene.

Ume batzuk –mojen eskolako uniforme zeramatzatzen jantzita– txakurraurrean aurrean makurtu eta laztandu egin zuten. Txakurrak egiten utzi zien, buru gaina ferekatzen ziotenean muturra goratu egiten zuten gustura zegoela adierazteko.

Parkera ailegatu zirenean, txakurrak buztana astindu zuen pozik eta uhaletik tiratu. Uhala zertxobait luzatu zion Helenek zumar baten enborra usnatzerantz joan zedin.

–Egun gogorra izan du gaurkoa –esaten hasi zitzaion aita Heleneri–, zergatik ez diogu tarte batez uhala kentzen? Joan dadila beste txakurrekin batera zerbaiten atzetik korrika egitera.

Helenek bazekien galarazita zegoela parke hartan txakurrari uhala kentzea. Bere lagunak txakurrekin joanda ze-

goelako zekien hori, baina ez zuen ezer esan.

Aitak arrazoia zeukan; gainera, beraien txakurrak otzana zirudien.

Txakurrari deitu, eta hau berehala hurbildu zitzaion bizkor. Makurtu, eta uhala kendu zion. Une hartan bertan txakurra intzirika hasi zen. Negarrez ari zitzaien. Negar zaratatsua, gorputz osoa dardara batean. Parkean zegoen jende guztia begira zuten. Inguruetako txakurrek ere korrikaldiak eten, eta negarrez ari zen kumeari begira zeuden.

Helenek ez zuen ulertu zer gertatzen ari zen aitaren hitzak aditu arte.

–Arima ustela eduki behar da gero txakur kumeari uhala kendu eta bide bazterrean abandonatzeko!

Zortzi urte besterik ez zituen arren, berehala jabetu zen egoeraz Helene. Azkar batean, txakurraren aurrean makurtu eta uhala jarri zion berriro lepo inguruan.

Txakurrak negarrak ahaztu eta, eskua lehenengo, besoa gero, miazkatu zituen esker onez.

Irribarre egin zuen Helenek aspaldiko partez, korridore aseptiko hartan eserita. ■



# Arnasa luzeko estrategia eta adostasunak marrazten

Euskararen etorkizun ikuspegia lantzen ari da Euskaltzaindia, 'Euskararen Gogoetagunea' egitasmoaren bidez

MIEL ANJEL ELUSTONDO

**2**022ko hazilean, *Euskararen Gogoetagunea* aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, euskararen arnas luzeko estrategia eta adostasunak zirriborrazeko asmotan. Hizkuntza komunitatearen diagnostiko eta pentsabide argienak bildu nahi lituzke egitasmoak, bateko eta besteko ikuspegiak eztabaidan jarritz. Euskararen akademiaren Jagon sailaren ardurapean, Jon Sarasua unibertsitate irakasle eta euskaltzaina da Euskararen Gogoetagunearen koordinatzailea, Ibon Usarralde du idazkaria, eta hamar lagunez osatutako kontraste taldea ere badu ondoan. Ekimena aurkezteko garaian Sarasuak adierazi zuenez, «XXI. mendeak galdegai berriak ekarri dizkio euskararen bideari, eta une honetan norabide-krisi baten zantzuak bizi ditu. Abagune honetan, euskararen inguruko iritzi argitaratuak dibergentzia handi samarra agertzen du egoerari buruzko balorazioan, analisi eta planteamenduetan. Egoera honen erdian, elementu baten falta sumatzen da: bisio edo etorkizun-ikuspegia. Eta, besteak beste, horrexetara dator egitas-

moa, arnasa luzeko estrategia marraztera, etorkizun ikuspegiarekin.

Hain zuzen, izen horixe du Gogoetagunearen barruan plazaratu duten lehen ponentziak: «Euskararen biziberritze prozesuaren etorkizun ikuspegia».

## Etorkizun-ikuspegia

Izenari dagokionez, «etorkizun-ikuspegia» kontzeptua *vision* litzateke ingelesez; *vision*, frantsesez; *visión*, gaztelaniaz; *visão*, portugesez. Sarasuak, haatik, *etorkizun-ikuspegi* erabiltzea hobetsi du, «baina *bisio* hitzaren esanahiarekin jira eta buelta ari gara». Hala ere, Sarasuaren adieran, etorkizun-ikuspegia ez da etorkizunari buruzko ikuspegi edo gogoeta soila, ezta aurreikuspenak egitea edo denon gogoan asmo batzuk izatea: «Ez da hori, baina hori ere bada. Orduan, etorkizun-ikuspegia da prozesu kolektiboetan, arnasa luzekoetan batik bat, giza multzo bat kohesionatzen, motibatzen eta norabideratzen duen etorkizuneko ortzi mugaren marrazkia». Esan nahi baita, etorkizun-ikuspegi egokitik sortzen direla ildo estrategiko artikulatuak.

Sarasuaren arabera, baitezpadakoa da etorkizun-ikuspegi edo bisioa ondo eraikitzea, ildo estrategikoak zuzen artikulatzeko. Bestela, ez dago. «Nik esango nuke, gurean, erakunde eta eragileak etengabe dabilzala ildoak asmatzen –batzuetan zuzen, besteetan ez hain zuzen–, eta nahitaezkoa dugula bisio egokia izatea, bisio egoki batek ezberdintasun kualitatiboa suposatzen duelako». Ondorioz, horrek estrategia ildoak artikulatzeko norabide dinamizatzailea eskainiko luke.

**«Perspektiba eta prospektiba behar ditugu, proiektio positiboa eta errealismoa, sustraiak eta berritasuna»**

(Jon Sarasua, Euskararen Gogoetagunearen koordinatzailea)

## Noranahiko

«Bizi izan dugun loraldia garai hartako [iragan mendeko 60ko hamarkada] ahaleginaren jarraipen betea izan da. Euskara batua, ikastolak, gau-eskolak... Lizardiren harako hura, ezta? 'Hizkuntza larreakoa, nahi haunat ere noranahikoa'. Gizarte modernoko funtzio guztiak euskaraz betetzeaz ari zen. Nik zuhaitzaren irudira ekarri dut hori, elementurik inportanteenak zuhaitz horren adarretan zintzilikatze bidea eskaintzen digulako: adarretako batean, corpora, euskararen estandarizazioa; bestean, hezkuntza; hemen, helduen euskalduntzea; han, hedabideak; eta, adarrik adar, kultur sorkuntza, aisialdia, administrazioa euskalduntzea, eta abar. Hor bada beste gako bat, alegia, eta da nondik biltzen duen izerdia zuhaitz horrek, zer duen sustraietan. Guk hiru erro nagusi bereizi ditugu: komunitate aktibazioa, erakunde aktibazioa, eta kontakizuna, edo, nahi bada, identitate-kontakizuna. Euskara biziberritzen orain arte egin dugun ibilbidean askok egin du lan, ez dugu protagonista bakarra, jende askok, jende ezberdin askok, hartu du parte».

(Jon Sarasua, «Euskararen etorkizun-ikuspegia»)

### Etorkizun-ikuspegia egoki eratu

Bisio egokia eratu ahal izateko, berriz, iragana barneratu beharra dago, Sarasuaren iritziz betiere: «Iraganeko prozesuak gure organismoan digeritu eta integratu behar ditugu eta, etorkizunera begira, sustraitzat hartu. Bestetik, egungo egoerari buruzko ikuspegi panoramiko eta, aldi berean, sintetiko landu behar da. Eta, hirugarren, norabide traktoreen iparrak sumatu behar dira». Eta Gogoetaginearen koordinatzaileari ariketa honixe deritza zail eta konplexuena: «Aurreko bi ariketak ondo egin behar dira, informazio asko sintetizatu behar da, eta sintesia egin ondoren, hortik ateratzen den gezi eiteko norabide bat sortu behar dugu, edo, bestela esanda, posibilitate-lerro bat»; orain arte ez bezalako bat, alegia.

Ez dago esaterik gure hizkuntza komunitateak orain artean norabiderik gabe

jardun duela. Sarasua zorrotzago ari da: «Esango nuke norabide bat sortzeak orain arte kontuan izan ez ditugun beste bi elementu neurri egokian konbinatzea eskatzen duela. Batetik, etorkizunari buruzko proiektio positiboa, *desideratuma*, alde utopikoa, eta, bestetik, berriz, etorkizun horri buruzko prospektiba errealista eta jantzia». Hain zuzen, horretaz ari da Gogoetaginearen koordinatzailea, bisioa eraiki behar dugula esaten duenean: «Prospektiba eta prospektiba behar ditugu, proiektio positiboa eta errealismoa, sustraiak eta berritasuna». Esan nahi baita, batzuen eta besteen konbinazio egokia.

### Norabide traktoreen iparrak

Etorkizun-ikuspegi edo bisioak aktibatzaile izan behar du. Izan behar du traktore, Sarasuaren iritziko. Eta hori baino gehiago ere bai: «Eta izan behar

## «Kolektiboak sinistu behar du norabide hori sortzea posible dela, utopia-tantak eta zailtasunak gorabehera»

(Jon Sarasua, Euskararen Gogoetaginearen koordinatzailea)


du motibatzailea, bizigarria, eta beste gauza bat, aurreko ezaugarri horiekin nekez batzen dena: izan behar du sinisgarria. Kolektiboak sinistu behar du norabide hori posible dela, utopia-tantak eta zailtasunak gorabehera». Eta, honetan, ohar bat du Sarasuak ahoz gora egin: «Kasu honetan, *kolektibo* hitza ez dagokio, soilik, euskaltzaleari. Gure bisio proposamenak geometria politiko irekiagoa du helburu»; hots, elkarrizketa eragin nahiko luke eragile gama zabal baten barruan.

Jakina denez, erakunde publiko, gizarte erakunde eta eragileei dagokie politikak erabakitzea. Gogoetagineak, hortaz, balizko norabideak ikusten lagundu nahi die haiei, gogoetaren emaitzak haien eta gizartearen eskura jarritz.

Jon Sarasuarena, honenbestez, Euskararen Gogoetaginearen lehen emaitza da. Bigarren ponentzia bat ere ondua dute –Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak, kasu honetan–, «Euskararen egoeraren diagnostikoaren sintesia» izeneko. Eta bidean dira beste hainbat ponentzia ere: aztertu eta hobetuko dira kontraste taldean, eta onartu eta plazaratuko dituzte, eztabaida publikorako baliagarri izan daitezten.

Bitartean, sarean da, aukeran, Jon Sarasuak aurkeztutako «Euskararen Etorkizun-ikuspegia» izeneko gogoeta, <https://www.youtube.com/watch?v=PrBnj0ShxTQ> helbidean. ■

# Elikagaien segurtasuna etxean eta etxetik kanpo



Primrose Freestone PhD PGCE SFHEA FRSB doktorea  
Mikrobiologia Klinikoko irakaslea  
Leicesterreko Unibertsitatea, Leicester LE1 7RH Erresuma Batua

## Zergatik jakin behar dugu elikadura-intoxikazioak nola saihestu daitezkeen

Bizi garen munduan, gure begiekin ikusi ezin ditugun mikroorganismoak dira nagusi (bakterioak, onddoak eta birusak). Mikroorganismo horietako gehienak ez dira kaltegarriak gizakia-erentzat, baina batzuek infekzio larriak eragin ditzakete, batez ere elikagaien lotutakoak. Elikadura-intoxikazioa bakterioek edo birusek kutsatutako elikagaiak edo edariak irensteak eragindako infekzioa da (1). Horietako kasu asko *Salmonella*, *Listeria* eta *Campylobacter* bakterioek eragiten dituzte, eta gaixotasun arinak edo oso larriak eragin ditzakete.

Elikadura-intoxikazioaren sintomak hauek dira: sukarra, goragalea, gorakoa, beherakoa eta bakteremia izeneko afekzio sistemiko larriagoa. Haurrek, adinekoek, haurdun dauden emakumeek, gaixotasun bat dutenek edo hain funtzionala ez den immunitate-sistema duten pertsonen intoxikatze arrisku handiagoa dute (1). Elikadura-

infekzioek ospitaleratzea eta heriotza eragin ditzakete (1, 2), baita pertsona osasuntsuetan ere, eta horrek gaixotasun larri bihurtzen ditu. Hala ere, elikadura-intoxikazioa prebenitu daiteke, baldin eta nola saihestu badakigu.

## Elikagaien segurtasuna etxean

### Eskuak garbitzea


Gure eskuak dira elikadura-intoxikazioen germenak hedatzeko bide nagusietako bat; beraz, oso garrantzitsua da ur epelarekin eta xaboiarekin kontzienteki garbitzea, gutxienez 40 segundoz, eta, ondoren, eskuoihal garbi batekin edo erabili eta botatzeko paperezko eskuoihal batekin lehortzea (3). Gainera, eskuak garbitu behar dira janaria presatu aurretik eta ondoren, eta haragia, arraina, zuritu gabeko barazkiak edo fruta gordinak ukitu ondoren. Baita zaborrontzia ukitu ondoren ere, komune-ra joan ostean eta etxetik irten orduko. Eskuak desinfektatzeko gelak behin-behineko garbitzaileak dira, baina ez

dira urarekin eta xaboiarekin garbitzea bezain eraginkorrak.

### Elikagaiak behar bezala biltegitratzea

Garrantzitsua da elikagaiak haien bizitza erabilgarri optimorako tenperatura eta ingurune egokian biltegitratzea (4). Tenperatura baxuan biltegitratu behar diren elikagai galkorren kasuan, ziurtatu behar da hozkailua ez dagoela 4 °C-tik gora; tenperatura altuagoan intoxikazioko bakterioak hazi daitezke (*Listeria*, esaterako), eta elikagai galkorren bizitza baliagarria murriztuko da. Hozkailurako termometro bat erostea ideia ona da, hozkailuak berak ez badakar bat. Elikagai hoztuak, barazkiak, haragia, hegaztiak eta arrain gordinak modu seguruan biltegitratu behar ditugu, germen kaltegarriak izan baititzakete, eta germen horiek erraz zabal baitaitezke ukitzen duten edozer gauzatara: beste elikagai batzuk, sukalde-gaina, mozteko taulak, labanak eta, jakina, eskuak. Beraz, elikagai gordinak hozkailuan gordetzen dituzunean, gorde





beti ontzi garbi eta hermetiko batean, hozkailuaren beheko apalean; horrela, tantaka hasiz gero, ez da tantarik jauziko beste elikagai batzuen gainera, batez ere kozinatu behar ez direnetera. Elikagai gordinak eta kozinatu behar ez direnak bereiztea komeni da (hala nola ogia, entsalada edo fruta prestatua); izan ere, haietara iristen diren germenak ez dira egosketaren beroarekin desagertuko, eta elikadura-intoxikaziorako arrisku bihur daitezke. Infekzioak saihesteko, ideia ona da ebakitzeko taula desberdinak erabiltzea elikagai gordinentzat eta kozinatu gabeentzat (4).

### **Iraungitze-data eta kontsumo lehenetsiaren data**

Pasta, arroza edo kontserbak bezalako iraupen luzeko elikagaien kasuan, kontsumo lehenetsiaren datak adierazten du elikagaia ezin hobea izango dela kalitateari dagokionez ezarritako data hori baino lehen kontsumitzen bada. Hala ere, ez du zertan segurtasunik gabea izan data horren ondoren kontsumitzen bada (5). Laten kasuan, nahiz eta data horren barruan egon, ez kontsumitu puztuta daudenak edo irekitzean presioa askatzeko txistu bat egiten ez dutenak, kutsatuta egon baitaitezke.

Iraungitze-datari dagokionez, elikagai galkorren segurtasuna azpimarratu behar da (5). Iraungitze-datak erregularatasunez egiaztatu, eta elikagaiak epearen barruan erabili edo kozinatzea komeni da, fabrikatzailearen jarraibideak jarraituta. Hala ere, iraukitze-data baino lehen, elikagaiaren ontzia puztuta badago edo, irekitzean, elikagaiak espero

ez zen itxura edo usaina badu, kutsadura egon daitekeela pentsatu behar da, eta elikagaia bota egin behar da. Kutsatutako elikagai batek eragindako infekzioak gaixotasun larria eragin dezake, eta arriskuak ez du merezi elikagaiaren galera ekonomikoa (5, 6). Era berean, ideia ona da zuk zeuk prestatzen duzun edo soberakin bezala gordetzen duzun edozein elikagai galkorri etiketa batean data jartzea, jakiteko zenbat denboraz den segurua biltegitratuta edukitzea. Soberakin gehienak, 48 ordura arte gorde daitezke hozkailuan estalita.

### **Prestatzea eta kozinatzea**

Elikagai gordinek, hala nola haragiak eta hegaztiak, elikadura-intoxikazioak eragiten dituzten mikroorganismoak izaten dituzte, eta arriskutsuak dira kontsumitzen badira. Haragiaren edo hegazti gordinen germenak ezin dira ezabatu, eta dauden bakterioak hiltzeko eta elikagaia kontsumorako segurua izateko modu bakarra kozinatzea da (4). 75 °C-tik gora eraginkortasunez hiltzen dira elikadura-intoxikazioak eragiten dituzten germen gehienak. Ideia ona da haragi-termometro bat erostea; izan ere, haragia kontsumorako segurua dela jakiteko modurik onena da haragiaren barne-tenperatura 75 °C-tara heldu dela ziurtatzea. Bestela, egiaztatu haragiak botatzen duen zukua argia dela eta odol-seinalerik ez dagoela. Jattetxe batean oilaskoa edo gutxi eginda dagoela ematen duen edozein hegazti zerbitzatzen badizute (adibidez, haragia moztean odola ikusten baduzu), itzul ezazu ondo prestatzeko. Haragian eta hegaztietan dauden bakterioak naturalak dira jatorri duten animalien-

tzat, baina kaltegarriak izan daitezke giza kontsumitzaileentzat; beraz, egoki kozinatzea funtsezkoa da elikagai horien segurtasuna bermatzeko (4).

### **Sukaldea garbitzea**

Sukaldeko higiena funtsezkoa da elikagaiak biltegitratzeko, baita prestatzeko segurtasuna bermatzeko ere (6). Garbitu sukalde-gain guztiak eta mozteko oholak janaria prestatu aurretik eta ondoren, kutsadura-iturri gurutzatua izan baitaitezke. Xaboi-ura edo bakterioen aurkako sukaldeko esprai bat erabili, eta garbitu eta lehortu erabili eta botatzeko paper garbiarekin. Sukaldeko beste atal batzuek ere arreta behar dute.

Sukaldeko belakiak eta sukaldeko oiha-lak hezeak eta, askotan, beroak egoten dira; beraz, bakterioak ugaltzeko leku egokiak dira. Sukaldeko belakiak etxeko germen kopuru handiena izaten dutela esaten da. Beraz, komeni da belakiak egunero aldatzea eta sukaldeko oiha-lak eta eskuoiha-lak ondo garbitu eta lehortzea, erabili ondoren.

### **Elikagaien segurtasuna aire zabalean**

#### **Otorduak aire zabalean**

Eskuak ondo garbitzea funtsezkoa da elikagaiak segurtasunez manipulatzeko, baina baliteke aire zabalean ez egotea eskuak garbitzeko instalaziorik. Eskuetarako alkohol-gelak alternatiba bat badira ere, ez dituzte ezabatzen elikadura-intoxikazioak eragiten dituzten germen guztiak (norobirusa, esaterako). Aire zabalean jatean (askariak,



piknikak eta barbakoak), elikadura-intoxikazioa arrisku potentziala bihurtzen da, elikagai galkorrak tenperatura-igoeraren mende egoten direlako eta naturan bizi diren intsektu, animalia eta abar gerturatu daitezkeelako janarira (7, 8).

Aire zabalean kontsumitzen den edozein elikagaik nahi ez diren intsektuak erakartzen ditu ia beti, esaterako, frutaren euliak, liztorrak eta, belar gainean jartzen den janariaren kasuan, inurriak. Horiek guztiek *E. Coli*, *Salmonella* eta *Listeria* bakterioak transferi ditzakete elikagaietara. Zaila da elikagai galkorrek hotz eta estalita mantentzea, baina funtsezkoa da; izan ere, germenak bikoiztu egin daitezke ordu pare batez baino gehiagoz elikagaiak 30 °C-tan uzten badira. Alde horretatik, izotz-poltsak oso erabilgarriak dira elikagaiak hotz mantentzeko. Barbakoetan, haragi-produktuak egoki kozinatzea bereziki garrantzitsua da, eta haragi-termometroa inbertsio ona da gutxi egindako haragiak eragindako elikadura-infekzioak saihesteko (ez jan haragiaren barne-tenperatura 70 °C-tik beherakoa bada). Ogitxoak, entsaladak eta hanburgesen edo kebabaren osagarriak estalita eduki, erabili behar dituzun arte. Euliak barbakoarako elikagai gordinen gainean jartzen badira, kozinatzerakoan berehala hilko dira germenak (8).

### Buffetak eta gosaltzeko barrak

Elikadura-intoxikazioa ere arriskutsua da buffet motako lekuetan, non janaria denen eskura dagoen (9). Buffetetako elikagaien kutsadura pertsonen janaria ukitzen dutelako gertatzen da, edo, bu-

ffetaren mahaitik gertu norbaitek doministiku edo ez tul egiten badu, germenek janarira joan daitezkeelako. Etxe barruan izanik ere, euliak edo liztorrak estali gabe dauden elikagaien gainean ibil daitezke, eta janaria kutsatu dezakete. Ezinbestean, airean dauden germenak ere janarira joango dira, eta airean bakterio, onddo eta birus asko daude.

Saiatu erlojuari begiratzeko buffet batean jaten duzunean; izan ere, sukaldaritzara-ara bat dago esaten duena elikagai galkorrek, estalita eta hoztuta ez badaude, ez direla kontsumorako seguruak bi ordu pasa ostean. Arazoa da buffetak jankideak iritsi aurretik prestatzen direla, eta, beraz, zaila dela jakitea janariak zenbat denbora darman han (9). Hoteletako gosari-barretan zerbitzatzen diren buffet beroetan, adibidez, komeni da lehor itxura duten elikagai epelak saihestea, elikadura-intoxikazioak eragiten dituzten bakterioak azkar hazi baitaitezke elikagaiak 60 °C-tik behera kontserbatzen direnean. Elikagai beroak bero zerbitzatu behar dira; hau da, gutxienez 60 °C-tara. Era berean, jogurtak, fruta eta frutazukuak hotz mantendu behar dira, gehienez ere 4 °C-tan (9).

### Ondorioa

Ez izutu elikadura-arriskuei buruzko informazio honekin. Elikagaien segurtasunari buruzko kontzientziazio-maila handia izateak onura handiak ditu: batetik, elikadura-intoxikazioak nola saihestu badakizu; eta, bestetik, zure gonbidatuek jakingo dute zuk prestatutako jakiak, gozoak izateaz gain, jateko seguruak direla! ■

### AIPATUTAKO ERREFERENTZIAK (Ingelesez daude guztiak):




- [1] <https://www.nhs.uk/conditions/food-poisoning/>
- [2] <https://www.cdc.gov/foodsafety/symptoms.html>
- [3] <https://www.nhs.uk/live-well/best-way-to-wash-your-hands/>
- [4] <https://www.fsis.usda.gov/food-safety/safe-food-handling-and-preparation/food-safety-basics/washing-food-does-it-promote-food#:~:text=While%20washing%20meat%20and%20poultry,further%20washing%20is%20not%20necessary.>
- [5] <https://www.food.gov.uk/safety-hygiene/best-before-and-use-by-dates>
- [6] [https://assets.publishing.service.gov.uk/media/5aec31ea40f0b631578af25e/HS\\_10.2\\_Food\\_Safety\\_and\\_Kitchen\\_Hygiene.pdf](https://assets.publishing.service.gov.uk/media/5aec31ea40f0b631578af25e/HS_10.2_Food_Safety_and_Kitchen_Hygiene.pdf)
- [7] <https://www.cdc.gov/foodsafety/communication/eatingout.html>
- [8] <https://www.betterhealth.vic.gov.au/health/healthyiving/food-safety-outdoors>
- [9] <https://www.fda.gov/food/buy-store-serve-safe-food/serving-safe-buffets>
- [10] <https://www.cdc.gov/foodsafety/communication/eatingout.html>

Hitz gezidunak

	Bahitzen duena	Asturia, patua	Lurrin, usain gozoa emateko gaia	Ele, solas	Basapiztia mota, lukia
	* DEITURA	Estatu	Putrea	Guraso arra	
			Kriptona		
	* IZENA				
	Denbora				
Uda emateko leku	Herri baxenabartarra				
Historia, kondaira	Enarak				
			Sodioa		Kontsonantea
			Hegazti mota		Barazki lekadunak
Gipuzkoako herria		Magnesioa		51	
Umoretsua		Kulunka		Erdaraz, Paue	
		Janari ongailua			
		Arrazoi			
Omen	Argizagiak				Modu atzizkia
Testu liburuak	Sufrea				
Uribe Kosta	Bost bokalak, ausaz jarriak			Okela adierazteko atzizkia	

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Arabako udalerrria, Aiaraldean.
2. Euskarri, laguntza, babes.
3. Gipuzkoako udalerrria, Tolosaldean.
4. Urteko 10. hilabete.
5. Bizkaieraz, hiri.
6. Hodeietatik tantaka erortzen den ur.
7. Keinu, imintzio.
8. Zerbait bere errotik bereizi.
9. Bizkaiko udalerrria, Arratian.

soluzioak

H	A	Z	E	R	I	A			
U	S	A	I	T	Z	L	E	A	
Z	O	R	K	A	I	T	Z	A	K
B	A	N	H	A	Z	I	A	Z	A
C				A	S	T	Z	O	
				U	D	A	L	A	I
				E	A	L	A	I	
				I	K	A	S	L	E

Hitz gezidunak

Goitik behera

1. Amurrio 2. Arrimu 3. Irura
4. Uri 5. Uri 6. Euri
7. Aieru 8. Erauzi 9. Zeamuri





[www.ivap.euskadi.eus](http://www.ivap.euskadi.eus)



**Online bakarrik  
eta dohainik**

**Liburuak**

# GAITU.EUS

## Gaitu proiektua

### BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI  
EUSKARAZ  
IRAKASTEKO



## ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

zure etxera doan jaso nahi baduzu,  
idatzi helbide honetara:



Donostia-San Sebastián 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
[administrazioaeuskaraz@ivap.eus](mailto:administrazioaeuskaraz@ivap.eus)

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta

Europar Batasuneko Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten dugu datu pertsonalak **tratamendu-jarduer**a honen barruan sartuko direla: "HAEEko argitalpenak". **Tratamenduaren arduraduna:** Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Zuzendaritza. **Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:** Argitalpena kudeatzea eta interesdunei postaz bidaltzea. **Legitimazioa:** Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko. **Informazioaren hartzaileak:** Ez da aurreikusten datuak jakinaraztea, lege-betebeharririk izan ezan. **Eskubideak:** Datuetarako irispidea, datuok zuzentzea eta ezabatzea, eta beste eskubide batzuk informazio gehigarrian azaltzen dira. **Informazio gehigarria:** Hemen kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: [https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-aprat/es/es/contenidos/informacion/rat/es\\_def/adjuntos/0220\\_es.html](https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-aprat/es/es/contenidos/informacion/rat/es_def/adjuntos/0220_es.html)